

12

Euskararen Erabileraren Normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundian
Joxean Amundarain

16

Erdarazko ezker-izenondoan euskarazko baliokideak
Juan Garzia

22

Enpresatik haratago
Pili Kaltzada

William A. Douglass, antropologoa:

“Euskal gaia ardatza da nire lanean”

Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroa (Nevada) abiarazi zuen William A. Douglass antropologoa 1967an. Hogeita hamahiru urtean, ezer ere ez zen lekuan kultur gune garrantzitsua egin zuen zenbait lagun eta kolaboratzaileekin batera. Egun, munduan guztiz preziatuak dira Douglasssek Renon eragindako departamendu eta bibliotekak. Azken batean, ikertzaile entzutetsu honek Euskal Herritik kanpo euskal gaiak jorratzen dituen unibertsitate gunerik baliotsuena eraiki zuela esan daiteke; lan hori guztia saritzeko asmoz, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Urrezko Domina eman zion apirilean, Iruñean bertan.



9. or.

Erreportajea: Birmoldaketatik garapen eta berrikuntzara, ikerketan barrena

Ekonomialariek birmoldaketa hitza erabili ohi dute 80ko hamarkadan Euskal Herriko industriaren egoera definitzeko garaian. Egun, arrunt aldatu da egoera, zeharo da bestelakoa, eta orduan ez bezalako izendapenetara jotzen dute ekonomiaz jardun nahi dutelarik. Ikerketa, garapena eta berrikuntza dira, besteak beste, baliatuko dituzten berba kutunak. Hitzon ondotik, teknologia parkeen egitekoa azpimarratuko dute.

13. or.



Eztabaida: Euskal Herria prest al dago turistak hartzeko?

Herri abegitsu eta adeitsuaren ospea dauka Euskal Herriak eta gure paisaiak, kulturak eta gastronomiak turista asko erakartzen dituzte urte osoan. Baina, uda da bisitari gehien ekartzen duen sasoiak. Prest al daude Euskal Herriko egiturak jende andana hau hartzeko? Turismoaren eragina era egokian bideratzen ari al gara? Arlo honetan jarduten duten lau laguni eskatu diegu euren iritzia.

20. or.



Elisa Espina



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lanlendeak:
Begoña Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Joxean Amundarain, Jon Arizkun, Manu Arrasate, Luis Elizondo, Miel Anjel Elustondo, Elisa Espina, Irene Fernández, Juan Garzia, Irati Jimenez, Pili Kaltzada, Gonzal Lopez, Luma, Asier Madarieta, Bego Miñaur, Nerea Pikabea, Joseba Terreros, Rosa Mari Urrutia, Maider Zaurriz.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Mirentxu Purroy, kazetaria: “Kontzientzia da kazetari ona bereizten duena”



Argazkia: EITBko Prentsa Bulegoa

Kazetaria izatea, horixe izan da iruindar honen txikitako ametsa. Baina kazetaritzarekin nahikoa ez, eta filosofia, psikologia eta zinea ere ikasi ditu. *Punto y hora* aldizkariaren sortzailea, *Egin* egunkariaren zuzendaria, eta hainbat film luzeren arduraduna izan da. Azken zortzi urteak munduko berriak gure etxeetara ekartzeko ahaleginetan eman ditu, ETB-2ko *Mundo.Hoy* saioaren bidez.

Nola hasi zinen kazetaritzan?

Txikitatik garbi izan dut horretan arituko nintzela. Nafarroako Unibertsitatean ikasten ari nintzela, prentsa idatzian hasi nintzen, eta geroztik ez diot kazetaria izateari utzi. Ezagutzen dudan lanbiderik aberasgarriena da.

Kazetaritzaz gain, psikologia, filosofia eta zinea ere landu dituzu...

Kazetaritza lanbide bizia da. Norberak munduari ahotsa, emozioa eta aurpegia jarri behar badizkio, jantzia egon behar du derrigor. Horregatik, ezagutzaren iturrietan aurki ditzake kazetariak mundua interpretatzeko gakoak.

Punto y hora aldizkariaren sortzaileetako bat, *Egin* egunkariako zuzendaria ere izan zinen... Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Oraindik ere, iragana oroitzen dudanean, garai hartako ilusioa sentitzen dut. Euskal arima isilarazi zuen diktadura krudel baten ondoren, dena estreinatzeko zegoen: askatasuna, hizkuntza, etorkizuna... Orduan herriaren bozemailea zen kazetaria: berrogei urte ilun igaro ondoren, askatasun osoa genuen informatzeko.

Hainbat komunikabide itxi dituzte epai-learen aginduz, tartean zuk zeuk zuzendutako *Egin* egunkaria. Asko hitz egin da horretaz, baina zein da zure iritzia?

Komunikabide bat berezko heriotza baten ondorioz hil bada, norbera atsekabetu egiten da, bizirik dagoen guztiak bizirik egoten jarraitu nahi izaten duelako. Baina zuk aipatu dituzun komunikabideak ez dira berez hil, tartean despotismoa, intolerantzia, krudelkeria politikoa eta herriarekiko errespetu falta daude. Beraz, boterearen mendekua izan da, *eguzkiak nora, zapiak hara* egiten dutenen laguntzarekin.

Gaur egun komunikabide asko dago; beraz, kazetaritzaren momenturik onenetakoan bizi garela pentsa dezakegu...

Orain dena merke saltzeko moduan gaude: iritzi emaile gehiago dago eta informatzaile gutxiago. Irakurleak egiazko informazioa jasotzeko eskubidea du eta hori gaur egun ez da zaintzen. Den-dena benetako informazioa balitz bezala saltzen digute, baina atzean ideologia eta propaganda besterik ez dago.

Gaur egun, kazetaritzarekin zerikusirik ez duten adituek kazetari lana egiten dute. Zer deritzozu horri?

Nik mediku zirujau ez den bati ez nioke sekula utziko ospitale batean lan egiten. Kazetaritzan, ordea, interes asko daude, eta talenturik handieneko pertsonak zein ganoragabeenak parte har dezake asmakizun honetan, arin-riak baitu lehentasuna. Komunikatzeko talentu handia duen pertsona batek profesional batek baino hobeto egin ahal badu, ni ez naiz horren aurka jarriko.

Zer-nolako ezaugarriak behar ditu lanbide honetako profesionalak?

Kontzientzia da kazetari ona bereizten duena. Egiaz, zintotasunez, iturriak egiaztatuz eman behar da informazioa. Beraz, etika eta kontzientzia dira ezaugarri nagusiak. Horrez gain, lantzen duen arloa ondo ezagutu behar du.

Ba al da oraindik bete ez duzun ametsen bat?

Nire ametsak betetzen ari naiz. Ongi nago neure buruarekin. Baina hainbat pertsona publikoren bizitzari eragin diezaioketen gauzak kontatzeke ditut oraindik. Izuagatik ez dut egin orain arte, baina ikusten ari naiz zenbait errealitate faltsukeria handiz kontatzen ari direla. Horregatik, nik bizi izan ditudan errealitate horiek kontatzen hasteko puntuan nago.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Homo scriptor

Joxerra Interínez ordenagailuzko idazlea goizean hasten da gutunak, oharak, txostenak, ziurtagiriak, kontratuak eta enparauak idazten erakunde handi bateko bulego handi batean eta hartan egun osoa eman ondoren, lana bukatu orduko, begiak nekatuta dauzka, lehor eta gorri ere bai batzuetan. Medikuaengana joan denetan gauza bera esan diote: “Ez aztoratzeko, normala dela gertatzen zaiona gertatzea ordenagailuari begira hainbeste denboran jardun eta gero, begietan jasaten dituen arazo horiek ez direla betiko, deskantsua hartu eta begiak berehala etortzen direla bere onera, horregatik ez duela bistarik galduko eta ez zaiola bistako gaitzik sortuko ere”.

–Benetan?

–Benetan. Ez zara konturatzen lanetik irten eta kalean zabilzanerako begiak deskantsatuta dituzula?

Mina bizkarrean ere behin baino gehiagotan jartzen zaiola eginez medikuarengana joan eta: “Ez beldurtzeko, lana jesarrita egiten dutenei muskuluak kizkurtzea edo biltzea ohikoa dela eta, ondorioz, bizkarra nekatzea ez dela harritzekoa; ordubetean behin-edo bost-hamar minutuko deskantsua hartuta ez dela horrelako minik agertzen edo gutxiagotan behintzat; mahaiek eta aulkiek ere badutela zerikusirik horretan, baita eserita egoteko moduak ere. Dena dela, muskuluak askatzeko ariketa erraz-errazak egin eta laster oneratzen direla...”

–Bai?

–Baietz ba! eta “ikusteko animaliek nola ateratzen dituzten nagiak”.

“Mugimendu berak egiten behin eta berriz, etengabea, jarduteak lehen aipatutako minak baino okerragoak eragiten dizkiola ordenagailuarekin diharduenari, gehien erabiltzen

dituen esku-besoetan batez ere. Esaterako sorbaldako tendinitisa eta, ondorioz, sorbaldaren birakako mugimenduetan, mina; ukalondoko epikondilitisa, ‘tenislarien (txarren) mina’, alegia; eta, agian gogorra, eskuturrean ‘karpoko kanala’ren sindromea: inurridura, karranpa, indarra galtzea, mina. Horrelakoetan deskantsu hutsa ez omen da erremedio; tratamendu berezia behar dela, baita ebakuntza ere batzuetan”.

“Zorioneko irakurle hori! Liburua hartu baino lehenago garbi itzazu eskuak, gero orriak kontuz pasatu, hatzekin letrak ukitu gabe. Idazten ez dakienak ez daki nolako lana den hori.

Bai gogorra den idaztea! Bista ilundu egiten du, gerriari oinazea eragiten dio eta gorputzeko atal guztiak erabat mintzen ditu.

Hiru hatz dira idazten dutenak, baina gorputz osoak sufritzen du”.

Aiene horiek VIII. mendeko monje batenak dira, liburu sainduetako testuak, Elizako Gurasoen idazkiak, liturgiako testuak eta “antzinako jentilenak” kopiaitzen zituen monje batenak, ordenagailuak sortu baino hamabi mende lehenagoak, 600-800 orriko kodizea egiteko 300 edo 400en bat ardi-larru behar izaten ziren sasoi luze hartakoak. Papera eta inprenta agertu zirenean pixkanaka azkarrean amaitu zen lan hura ere. Monje hark monasterio handi bateko areto handi batean egiten zuen lan, “idazteko aretorik gabeko monasterioa, harmalekurik gabeko gotorlekuaren antzeko” zioten sasoi hartan, udarako egun luzeetan, egun-argia aprobetxatuz, 12 orduz, begiak letrei itsatsita, gorputza makurtuta, kizkurtuta...

**Kaxildo Alkorta
Laguna**

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Donostia Ospitalearen euskara plana

2006ko apirilaren 27an Donostia Ospitaleak euskararen erabilera normalizatzeko lehenbiziko plana onetsi eta abiarazi zuen, 2006-2011 epean garatzeko.

Ospitalearen plana Osakidetzaren euskara plan orokorraren zehaztapen eta egokitzapena da; hartara, Osakidetzako euskararen normalizazio prozesuaren barruan kokatu eta ulertu behar da. Prozesua 2003. urtean abiatu zen, 67/2003 Dekretuak Osakidetzaren euskara plana eratzeko oinarri juridikoak ezarri zituenean. Ondoren, 2005ean, erakunde publikoak 2011ra arteko plana onartu zuen, pazienteekiko ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen erabilera areagotu nahian. Baina Osakidetzaren euskara planeko irizpide eta arauak zerbitzu erakunde guztietan gauzatu beharra zegoen, plana behar bezala zabaldu eta garatuko bazen. Horrela, Donostia Ospitaleak bere egitasmoa atondu zuen, ospitalearen egitura, beharrian eta jardun eremuko testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta. Hona, plangintza zabal horren ildo nagusien eskema bildu dugu.

Planaren helburu nagusia

Helburu nagusiak bi asmo bateratzen ditu: paziente eta erabiltzaile guztien hizkuntz eskubideak babesteko aurrerapausoak ematea eta, aldi berean, beraiekiko harremanetan hurbiltasuna eta komunikazioa hobetzea. Alde horretatik, euskara plana ospitaleko zerbitzuen kalitatea ontzeko tresna estrategikoa da, ulergarritasuna eta komunikazioaren egokitasuna osasun zerbitzuen kalitatea bermatzeko funtsezko faktoreak dira eta.

Euskararen erabilera ziurtatzeko irizpide eta neurriak

Zerbitzu hizkuntza

Ahozko harremanetan, megafonia eta erantzungailuen bidezko mezuetan ez ezik, lehentasunezko unitateetan ere euskarazko zerbitzua bermatu beharra dago euskaraz artatuak izan nahi duten erabiltzaileekin. Zerbitzu hori derrigorrezkotasun data daukaten lanpostuetako langileek eman behar dute, lanpostuaren hizkuntz eskakizuna egiaztatzen dutenetik. Aitzitik, unitate horietan derrigorrezkotasun datarik ez daukaten



lanpostuetako langileek, euskaraz ahozko zerbitzua emateko gaitasunik izan ezean, pazientea errespetuz hartu eta kide elebidunen laguntza eskatu behar dute.

Idatzizko harremanetan, euskararen erabilera honako euskarriotan bermatuko da, betiere gaztelaniaren aurretik: logotipo, gutun azal, idazpuru eta zigiluetan; ospitalearen barruko eta kanpoko errotulu eta kartel ofizialetan; ospitalearen web gune eta argitalpenetan; publizitatean; ekitaldi publikoetan; eta agiri estandarizatuetan. Herritarrekiko nahiz EAEko herri administrazioekiko idatzizko harremanetan ere bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira ofizioz, baina harreman pertsonalizatuetan hizkuntza bakarra erabil daiteke herritarrek edo administrazioek hala eskatzen badute, baita komunikazioak administrazioetako atal elebidunetara bidali behar direnean ere.

Irizpideekin batera, herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko neurri batzuk ere xedatu dira, zein bere epe eta arduradunekin:

- Enplegatu euskaldunak identifikatzeko bereizgarriak: mantaletako intsigniak eta mahaiko errotuluak.
- Ospitalearen itzulpen politika eta testuen kudeaketaren gaineko protokoloa.

- ▶ Pazienteen erregistroan idatzizko hizkuntzaren aukera jasotzea, euskara lehenesten duten herritarrei komunikazioak euskara hutsean igortzeko.
- ▶ Osasun laguntza euskaraz eskain dezaketen unitateen datu basea sortu eta pazienteei jakinaraztea.

Lan hizkuntza eta langileekiko harremanak

Ospitaleak euskararen erabilera bermatu behar du bai barruko txosten, azterlan eta oroitidazkietan, bai barruko langileekiko komunikazioetan. Osasun jardueretako barne agiriei dagokienez, berriz, ahal den kasuetan soilik bultzatuko da euskararen erabilera.

Bi neurri zehaztu dira lan jardunetan eta barruko harremanetan euskararen erabilera sustatzeari begira:

- ▶ Enplegatu euskaldunei euskarazko programa informatikoak ipintzea.
- ▶ Giza baliabideak kudeatzeko aplikazio informatikoan idatzizko hizkuntzaren aukera jasotzea, euskara lehenesten duten langileei komunikazioak euskara hutsean igortzeko.

Zerbitzuen kontratazioak

Euskara planak bi multzotan sailkatu ditu ospitaleak kontratatu ohi dituen zerbitzuak: bateko, bezeroak artatzeko zerbitzuak (kafetegia, denda, telefonía, segurtasuna); besteko, zerbitzu orokorrak (garbiketa eta mantentze zerbitzuak, gai hornikuntza). Lehen multzoa lehentasunezkoat jo da, eta ahozko nahiz idatzizko hizkuntz irizpideak erantsi dira kontratazio pleguetan. Irizpideen betetze mailari buruzko ebaluazioa ere aurreikusi da.

Ospitalearen helburu zehatzak eta lehentasunezko unitateak

Donostia Ospitalearen jardun eremu geografikoak Donostia-Beterrri, Tolosaldea, Urola-Kostako udalerrri gehienak eta Oiarzualdeko zenbait udalerrri hartzen ditu barne. Eremu osoko herritar euskaldunen portzentajea %46,67koa izanik, 67/2003 Dekretuko derrigorrezkotasan indizearen arabera lehentasunezko unitateak zehaztu dira:

Zerbitzua euskaraz eskaini behar duten unitateak

- ▶ Bezeroak artatzeko eta informatzeko unitate guztiak: informazio unitateak, kontsultetako harrerak, ospitaleratzeko onarpenak, Eguneko Ospitale Kirurgikoko harrera, gizarte laguntzaileak, PEAZ (Pazienteak eta Erabiltzaileak Artatzeko Zerbitzua)...
- ▶ Pediatria larrialdiak.

Guztira hamazazpi unitate dira, eta erabateko lehentasuna dute euskararen erabileraren normalizazioan. Unitateotan, lanpostuen %80k gutxienez daukate derrigorrezkotasan data esleituta. Lanpostu horietako langileek lehentasuna dute lanorduetan euskara ikasi edo trebakuntza programetan parte hartzeko.

Zerbitzua euskaraz pixkanaka eskaini behar duten unitateak

- ▶ Larrialdi orokor eta ginekologikoak.
- ▶ Ospitaleko solairuetako erizaintza unitate guztiak.

Hogeita hamazazpi unitate dira, eta bigarren lehentasuna dute. Lanpostuen %10ek gutxienez daukate derrigorrezkotasan data.

Lehentasunezko unitateetako erabilera programak

Lehentasunezko unitate guztietan euskara erabiltzeko mikroplan berezi bana prestatu eta gauzatuko da, unitateko hizkuntz egoera eta eginkizunei egokituta. Programan ospitaleko euskara planeko irizpideak agertu eta unitatean nortzuek, noiz eta nola beteko dituzten zehaztuko da. Orobat, prestakuntza eta trebakuntza premiak jasoko dira, baita unitateko euskararen erabilera ebaluatzeko eta neurri zuzentzaileak proposatzeko metodologia ere.

Langileen prestakuntza

Lau bide jorratuko dira ospitaleko beharginen hizkuntz prestakuntza bultzatu eta sendotzeko:

- ▶ Euskara ikastaroak: ospitaleak urtero iragarri eta kudeatuko ditu Osakidetza eta IVAPek eskaintzen dituzten lanorduetako nahiz lanorduz kanpoko euskara ikastaroak.
- ▶ Prestakuntza Plan Indibidualizatuak: ospitaleak prestakuntza plan berezia proposatuko die epe jakin batean hizkuntz eskakizuna egiaztatu behar duten langileei, gehienbat lehentasunezko unitateetan diharduten langile finkoei. Plan horretan, ospitaleak eta enplegatuak konpromisoa hartuko dute adostutako denbora tartean langilearen hizkuntz prestakuntza erraztu eta beharrezko gaitasuna lortze aldera.
- ▶ Trebakuntza saioak: euskara planean hiru arlo aurreikusi dira lan egiteko gaiturik dauden langileak –eta bereziki lehentasunezko unitateetakoak– zerbitzu hizkuntzan trebatzeko: a) paziente eta erabiltzaileekiko ahozko harremanak; b) osasun lanetan pazienteei helarazten zaizkien mezu, hitzordu, informazio ohar, gomendio eta ohiko agiriak; c) administrazio lanetako oinarrizko agiriak.
- ▶ Etengabeko prestakuntza: programetan euskarazko eskaintza bermatuko da.

Planaren ebaluazioa

Ospitaleak euskara planaren garapenari buruzko bi ebaluazio egingo ditu: hirugarren eta bosgarren urtean. Halaber, euskara planeko atalik garrantzitsuenak urtero ebaluatuko dira Osakidetza Donostia Ospitalearekin sinatutako programa-kontratuaren ebaluazioan.

Antolakuntza

Euskara plana behar bezala garatu eta ebaluatu nahian, ospitaleak euskara batzordea osatu eta euskara planaren arduradun teknikoa izendatu du. Horrez gain, planaren inguruko komunikazio bideak finkatu dira.

Horra hor hurrengo urteetan Donostia Ospitalean euskararen erabilera areagotzeko plangintzaren helburu eta ildo estrategiko nagusiak. Orain, erakundeko arduradun, langile eta erabiltzaileei dagokigu arian-arian euskarari ahalik eta zabalkunderik handiena ematea.

Gontzal Lopez
Donostia Ospitaleko euskara teknikaria



Mundua on line

Berritasunak web bidezko posta zerbitzuetan

Yahoo! eta Google Interneteko enpresa erraldioen artean lehia areagotu egin da azken asteetan, biek eskaintzen dituzten posta zerbitzuak direla-eta: Yahoo! Mail eta Gmail. Duela gutxi Yahoo!-k iragarri zuenez, bere web bidezko posta zerbitzuan espazio mugagabea eskaintzeko asmoa du, eta harpidedunen artean eskaintza hori ezartzen hasi da dagoeneko. Googleren menpeko Gmail zerbitzuak espaziorik handiena eskaintzen zuen orain arte, 2800 MB baino gehiago, baina, dirudienez, laster espazio mugagabea ematen hasiko da, lehiakidearen antzera. Eta Yahoo!-ren ekimenari aurre egiteko asmoz, duela gutxi Gmail-ek 20 MB-ra igo du atxikita bidal daitezkeen fitxategien tamaina, aurretik zegoen muga bikoiztuz. Lehenago ezin truka zitezkeen musika eta irudi fitxategi handiak bidali eta jaso daitezke orain. Lehia honetan murgilduta dagoen hirugarren partaideak, Microsoftek, duela gutxi Hotmail-en bertsio berria aurkeztu du, Windows Live Hotmail izenekoa, eta 2 GB-ko espazioa ematen du. Baina atzean geratu nahi ez badu, beste bien aukerak berdindu beharko ditu gutxienez.

Posta zerbitzu hauek honako helbideetan aurki daitezke:

www.gmail.com mail.yahoo.com www.hotmail.com

Luis Elizondo
lvix@mail.com

Euskaltermek hiztegi gehiago

Euskalterm Terminologia Bankuan eskura ditugu dagoeneko hiru hiztegi gehiago: Elektrizitate Dendetako Hiztegia, Garraio eta Logistikaren Hiztegia eta Gorputz Hezkuntzako Hiztegia. Lehenengoan, Elektrizitate dendetan eta arlo horretako etxe komertzialetan erabiltzen diren 150 termino aurkituko dituzu, %24 definituta. Bigarrenean, garraio-mota ezberdinei dagozkien terminoak bildu dira: trenbide, errepide, aire, itsaso eta garraio intermodalekoak; guztira 250 termino, denak euskaraz definituta. Eta hirugarrenean, euskarazko eta gaztelaniazko 395 kontzeptu ditugu kontsultagai, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilerrean nahiz Lanbide Heziketan erabiltzen direnak; horietatik 72 definitu dira. Hiruretan, sarrerek euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daude.

RIEV aldizkariak ehun urte bete ditu

Euskal kulturaren inguruko ikerketak zabaltzeko, Julio de Urquijok *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) sortu zuen 1907an. Aldizkari honek euskal folklore, historia, antropologia eta literaturaren inguruko lanak plazaratu eta, hasiera-hasieratik, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez nahiz ingelesez idatzitako lanak argitaratu ditu. Idazleen artean Pio Baroja, Luis Loucien Bonaparte, Americo Castro, Ramón Méndez Pidal, Rafael Sánchez Mazas, Miguel Unamuno... izan ditugu. Eusko Ikaskuntzak RIEV aldizkariaren zerbaki guztiak jarri ditu sarean.

Maiatz aldizkariak 25 urte bete ditu

Maiatz aldizkaria 1981ean sortu zen Ipar Euskal Herrian euskal literatura sustatu, berri eta idazleen arteko harremanak sendotzeko. Lucien Etxezaharretak eta Itxaro Bordak jarri zuten abian. Lehenengo alea Angelun inprimatu zen, apaiz euskaltzale baten multikopistan. Gaur egun Interneten jartzeko asmoa dute. Ale batzuk Ibiñagabeitia Proiektuaren web gunean daude dagoeneko (<http://andima.armiarma.com/maia/aurki.htm>).

Mastering Multimedia: Teaching Languages through Technology

Eurocall erakundeak jardunaldiak antolatu ditu teknologia multimedialak hizkuntzak irakasteko eskaintzen dituen baliabideen inguruan. Izan ere, gaur egun teknologia mota hori hizkuntzak irakasteko funtsezko tresna da, baina ziurtatu beharra dago irakasleek lanabes hori ezagutzen dutela eta, aldi berean, gai direla ikasgelan tresna horri ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

Jardunaldiotan, besteak beste, Web 2.0k hizkuntzak irakasteko zabaltu dituen ikuspegi berriak aztertuko dira; era berean, *e-learning* eta pedagogia *on line* bezalako kontzeptuen gaineko azken ikerketak plazaratuko dira.

Hitzaldiak Irlandan izango dira, Ulsterreko Unibertsitatean, irailaren 5etik 8ra bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara: www.eurocall2007.com

Haratagokoak



Gure familiaren historia idatzi ezina da; ipuinak behar duen sinesgarritasuna falta zaio. Nik ezin dut besterik gabe esan “gure aitona otso gizon ehiztaria zen eta ezkerreko izterrean zeukan hogei zentimetroko zauriaren arrastoa, Gernikako astelehen baten likantropo batek egin-dakoa”. Ezin esan “amuma sorgina dugu, orain ez horrenbeste baina gaztetan? Jesukristorena! Behin alkateari begizkoa jo zion, eta herrian lehortea eduki genuen sei urtean. Geure herrian bakarrik; Mundakatik atera eta blaust, euria. Bermeon? Uholdeak! Baina Mundakan euri garaurik ere ez, siku”. Nahiko nuke, baina ezin dut kontatu Kepa lehengusua banpiroarekin enamoratu zela. Gau eta egun zebilen banpiroa gora eta banpiroa behera, odola edaten ziola baina maite zuela eta “zer egingo dut?” eta “maitasunak odolustuko nau” eta halakoak. Ez da mutil txarra gure Kepa. Baina laster larritzen da.

Eskolan sufritzen nuen nik. Idazlanekin. Gaia beti zen halakoren bat: “kontatu zure oporraldia nola joan den”, edo “zure familiari buruzko idazlantxoia egin”. Hasieran bai, hasieran saiutzen nintzen, otzan-otzan idazten udako gure kontuena. Zelan joaten ginen abuztuaren larrian Lagako hondartzara. Familiaren R5 txikian, lehenguxu-lehenguxinak sartuta, denok marrazki bizidunen kantak abesten. Kontatuko nukeen gustura, nola haserretzen zen gure ama uretara sartzen ginenean eta Izarora igerian hasi, munduko sakonera doazen tunelen bila. Ernecatuta ibiltzen zen, baina ez da harritzekoa. Pentsa, bost umerekin. Lau telekinesikoak eta bosgarrena, Ainhoa (osaba Mikelen alaba), zeliakoa. Alegia, ogia eta halakoak ezin dituela jan glutena-edo omen dutelako. Pena ikaragarria ematen zigun. Orain Irlandan bizi da, auzolandegi baten ezagutu zuen bertako batekin ezkontuta. Behinola hitz egin genuen ispilu magikoak erabilita

aspaldiko partez eta zera dio: orain hainbat gauza prestatuta datozela zeliakoentzat. Makarroiak eta arroza eta ia denetarik. “Ederto”, esan nion, pozten nintzela ikaragarri.

Hamar urte edo izango nituen familia kontuak idatzi ezinak zirela ulertu nuenean. Euskara andereñoak klasean geratzeko eskatu zidan, ordutik kanpo. Astelehen tonto goibela zen, laino mardulak leihoaz bestaldean marapilatuta. Gustatu zitzaizkidan nire idazlana, esan zidan. Zuzen eta ondo idatzia, baina errealista behar zuela izan. “Irudimena gauza ederra da, baina hori utziko dugu ipuinak idazten ditugunerako”. Irudimena, esan zidan. Nahi bai nik, irudimena eduki! Idazlan errealistak taxutzeko pasatu nituen izerdiak oraindik ditut gogoan.


Telebista ikusten nuen, ideiak ateratzeko. Dallas izeneko telesaila. Ia okerrago. Aitak Zornotzako deabru zulo bat itxeko lana utzi behar izan zuen eskolara joan eta andereñoarekin hitz egiteko. Antza denez, mozkortutako ama, aita-orde psikotikoa eta mendekua kobratzeko bere arrebaren senarra eskaileretan behera botatzen duen familia ere ez zen “errealista”. “Umea” esan zidan aitak, “gezurra nahi badute, emaezu gezurra”. Eman nien. Ikasi nuen. Eskerrak. Eskolako psikologoa arduratuta neukan.

Lorena. Horixe zen nire txikitako heroia. Idazlan batzuk egiten zituen, ezin sinestekoak. Nazkatzeraino errealistak eta ahaleginik gabe gainera. Ama Eroskin langilea zuela eta jogurtak debalde ekartzen zizkiola, neba txikia futbol zalea zela eta Athleticen kamiseta nahi zuela eta halakoak. Berez etortzen zitzaizkion. Ia gehienetan irakasleak adibide jartzen zuen eta denontzat irakurri hark idatzia. Halako irakurketa baten entzun nion “gure aitak administrazioan egiten du lan” esaldia eta *ah.ze.zirrara*. Benetan. Administrazioa. Entzun gabe nuen hitza. Zer ote? Etxean galdetu eta inork ez zekien. “Aita, zer egiten dute administrazioan?”. Ez zekien eta “ba, administratu, umea!” esan zidan. Misterioa.

Orain arte. Gaur asteazkena da. Maiatzak 16. Ondo gogoratuko dut beti, ze gaur Lorena ikusi dut kasualitatez. “Epa, epa eta zer moduz eta zenbat denbora” eta ordu erdi hitz egiten, konturatu gabe. Eta hara non esaten didan, ea kaferik hartuko dudan. Eta baietz nik eta berak bulegora joan behar duela momentu baten gausa batzuk batzeko. Eta nik “ederto”, ea non egiten duen lan. Eta berak “Foru Aldundian”. “Aitak bezala”, esan dit, “administrazioan”. Eta nik, mingaina ere siku sentitzen nuela, baina adoretuta barrura lagunduko niola “nahi baduzu”. “Ondo” esan dit, “goazen”. Eta barrura narama. *Administrazioa* esaten duten seinaleei jarraiki. Bera hitz egiten eta ni, mutu.

Mundu ezezagunera sartzen den edonork badaki bihotza puztu eta sabela estutzen dela lehen pausuak ematen direnean. Esku barruak izerditan, eta ahoa lehor. Administrazioa, txikitako ametsen hitz ezezaguna ari zait buruan bueltaka. Eta ni berarekin taupadaka, bizipoz beldurgarri ziot. Azkenean, ene bada, “administrazioa”.

Irati Jimenez



William A. Douglass, antropologoa

**“Euskal gaiak osatu du
nire irudi akademikoa”**

Sarri antzean etorri ohi da William A. Douglass antropologoa Euskal Herrira. Maiz egiteko akademikoa du aitzakia: landa lana, ikastaroa edo biltzarra. Zenbaitetan, berriz, aipua, ospakizuna eta gorazarrea ditu arrazoi. Horixe izan da azken bisita honen zergatia. NUPren Urrezko Domina jasotzera etorri zen apirilean, unibertsitate honen XX. urteurrenean.

Nafarroan izan zaitugu, Unibertsitate Publikoaren ohorea jasotzen.

NUPren Urrezko Domina jaso dut apirilaren amaieran. Uste dut iaz eman zidatela, nahiz eta orain jaso dudana. Unibertsitate horrek ekitaldi ofiziala antolatu zuen, 20 urte betetzen dituela eta. Rafael Moneo artista ohorezko erreto-re izendatu zuten ekitaldi berean, niri unibertsitatearen urrezko domina eman zidaten. Merezimenduzko saria.

Emateko modukoa. Zure ibilbideagatik, eta zure biblioteka NUPri emateagatik.

Duela pare bat urte Renon izan genuen Goio Monreal irakaslea, Bizkaiko Foru Zaharrari buruz buru-belarri lanean. Nik etxea bete liburu daukat eta nire biblioteka NUPri ematea erabaki genuen Goio adiskideak eta biok. Horretaz pentsatzen hasi ginen, behintzat. Goio Monrealek mugitu ditu hariak.

NUPren ekitaldia egin aurreko asteburuan, jardunaldiak egin zituen Euskaltzaindiak Etxalarren. Zure baitan esanahi berezia duen herria da...

Bai horixe. Nire karrera profesionalaren hasiera izan zen Etxalar, euskal gaiekiko konpromisoaren lehenengo harria. Konpromiso horrek, bestalde, bizitza osoan iraun du, ez da aldi bateko usoa izan. Ni Etxalarko atetik, Nafarroakotik alegia, sartu nintzen euskal ikasketetan eta Euskal Herrian. 1962-63 inguruan izan zen.

Antropologia ikasle zinela heldu zinen Etxalarra. Han ikerketa lana burutu eta Aulestira jo zenuen, zure egitekoa osatzera. Zure geografiako lekue-tako batzuk dituzu Etxalar eta Aulesti. Ez dira bakarrak, jakina, baina bai ondo seinalatuak.

Bizitza profesional guztietan ageri dira leku edo garai giltzarriak. Pertsona batetik bestera aldatu egiten dira, noski.


Niri dagokidanez, Nafarroako Etxalar, Bizkaiko Aulesti eta Nevadako Reno dira horietako batzuk. Baina baditut leku gehiago ere. Agnone adibidez, Italiako hegoaldean. Eta Australian ere baditut zenbait leku. Munduan zehar hainbat leku ditut barreiatuak. Nire izaera leku denek osatu dutela esango nuke. Osatu ez ezik, era batera konfiguratu ere egin nautela esango nuke, pertsona eta unibertsitateko irakasle eta ikertzailea naizen aldetik. Bestalde, leku batera ikertzera joan eta hangoaz idazteko joera dudanez, nik neuk ere konfiguratu egiten ditut lekuak. Haiek ni bezainbat, nik haiek.

**“Duela 40 urte,
Basque Studies
nire bulegoa zen,
ez besterik”**

Zein oroitzapen datozkizu Etxalarko garaiaz? Egonaldia egin zenuen zure lehenengo emazte eta urtebeteko semearekin Buxungoborda base-rrian, mendian gora...

... eta mendian behera! Gogoratzen naiz mandoa hartuta jaisten genuela esnea Buxungobordatik ibarreraino. Ez zegoen errepiderik. Bidezidorretik barrena joaten ginen, baina, ezta herri guneraino ere, ibarreraino baizik, hau da,

esneketariak inguruko zenbait baserriak esnea biltzen zuen lekuri gorenaraino. Ordu erdi bat-edo behar izaten genuen baserriak hara. Gogoratzen naiz bonbilla bat genuela etxean, eta pare bat ordu irauten zuela. Putzu bat genuen eta han nahiko ur zenean, bi bonbilla pizten ziren, bata ukuiluan, behiak jezteko, eta bestea sukaldian. Gehienetan, afaria amaitu aitzin itzaltzen zen bonbilla, indar faltak ahituta. Kandela batzuen argipean egoten ginen. Orduetako erdi ilunpetan egin eta ohera joaten ginen...



Etxalartik Aulestira, *Death in Murelaga* (Heriotza Aulestin) idatzi zenuen hango egonaldiaren ondorioz.

Herri exodoaren gaineko antropologia azterketa egin nuen Etxalarren. Hura bukatu eta beste herri baten egoera aztertu behar nuela sartu zitzaidan buruan, alderatzeko. Eta hantxe ibili nintzen, astebetez, herriz herri, Etxalarren antzeko ezaugarriak zituen herri baten bila. Horrelaxe etorri zen Aulestiko liburua. Munitibarreko taberna batean sartu –tabernariak ziren nire berriemaileak, askotan– eta Aulestiko abadearengana zuzendu ninduten, On Emilio Kortabitarterengana. “Aulestiko gotzaina” esaten zioten. Hark bazuen garra! Joan eta, abadeak, Zubero auzoko Goitiandia baserrira eraman ninduen. Ni Nevadako amerikarra eta, Goitiandiako nagusia Idahon artzaina izana zela esan! Are gehiago, artean Idahon zituen seme bi. Urtebete egin nuen baserri hartan, herrian hainbat azterketa egiten nituen bitartean. On Emiliorekin berriketan, berriz, heriotza errituak aztertu nituen *Death in Murelaga* liburuan.

Hain justu, Sarrionandiaren *Lagun izoztua* nobelako pasarte batean protagonistak begiz jotzen duen liburua. “Gero inprentako letretan ere ikusiko zuen euskara, halako egun batean Artekaleko paperdara sartu zenean. (...) Goiok boligrafo bi erosi nahi zituen, baina dendaria egunkariak eman eta dirua jaso ia etenik gabe ari zenez gero, eskaparatean erakusten ziren liburuei begira geratu zen:

***Jaio nintzan iltzeo
Aldi-oro noa iltzen
Ildakoan erabat
Asiko naiz bizitzen.***

(...) Liburua eskuan hartu eta autorearen izena ikusi zuen: William A. Douglass. Liburuaren tituluak ere hotzikara eman zion: *Muerte en Murélag*”.

Onena opa diot.

Oroitzapenik?

Bai, oroitzapenak hor dira, nire baitan. Ez dira aldatzen. NUPren XX. urteurrena aitzakia etorri naiz Euskal Herrira. Bada, 40 urte dira Renoko Euskal Ikasketen Programa abiarazi genuenetik. Etxalarren, berriz, duela 50 urte inguru izan nintzen! Horri buruz pentsatzen jarri eta ez zait iruditzen beste pertsona bat naizenik. Aldi berean, ez dut neure burua, 67 urteko erretiroan sartua eta ilea urdindua, gazte haren azalean ikusten: lanak ditut sinesten. Nolabait esateko, nire Etxalar hark ez du irauten, ezta hogeitaka urte zituen gazte hark ere. Joandako ura dira biak. Dakidanez, orain bidea egina dute Buxungoborda bertaraino, baina ez dakit baserrian inor bizi ote den. Horixe da herri honen ironia. Modernizatu egin da, hustu arau.

Zenbat aldatu da Renoko Unibertsitateko *Basque Studies Program* (Euskal Ikasketen Programa) 40 urte hauetan?

Ez dago horri erantzuterik. Izan ere, duela 40 urte, *Basque Studies* nire bulegoa zen, ez besterik. Ez zegoen unibertsitateko campusean ere, ikerketa zentro batean baizik. Alde genuen bakarra zera zen: William Jacobsen irakasleak beka eskatua ziola *National Science Foundation* erakundeari, euskararen gaineko ikerketa bat egiteko. Hori besterik ez genuen izan gure alde!

Jon Bilbao etorri zen gero.

Bai, programaren bigarren urtean. Jon Renora etorri zen lanera, eta nirearen ondoan eduki zuen bere bulegoa. Unibertsitateko bibliotekan, bestalde, euskarazko zenbait liburu zituzten, baina liburutegiko bilduma berezian zeuden, eurei zegokien leku berezirik gabe. Liburu kopurua ere ez zen handia: Philip Veyrinen bildumako 750 bat liburu. Izan ere, Robert Laxalt idazlea Donibane-Garazin egona zen, urtebetez, eta Philippe Veyrin-en lagun egin zen bertan. Veyrin hilzorian zegoen, eta biblioteka Renori salduko ziola hitz eman zion Laxalti. 750en bat liburu, esan dudanez. 6.000 dolar ordaindu genituen. Haiek eta nik han eta hemen erosi eta inguratutako beste ehun bat, ez ziren gehiago izango. Guztira, mila baino gutxiago. Ez zuten leku askorik betetzen: apalategi bakar batean zeuden. Eta, sinistu gero, guk campusean ez genuen liburu apalategi hura besterik. Horrelaxe jarri genuen Renoko unibertsitatean egun dugun euskal liburutegi bikainaren hazia.

Zer da gaur egungo *Center for Basque Studies* (Euskal Ikasketen Zentroa)?

Unibertsitateko campusean gaude aspaldi, bospasei irakasle eta ikertzaile ditu lanean, beste pare bat langile administrazio jardunean, hamaika lan argitaratu ditu, Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat irakasle igaro ohi da bertatik... Benetako zentroa da. Bestalde, euskal liburutegiak nortasun berezia dauka, ez dagokio gure zentroari, liburutegi nagusiari baizik, baina mila-

ka ale ditu, Euskal Herritik kanpora euskal gaien inguruan daukagun bibliotekarik aberatsena da. Bizi-bizirik dago. Orain, berriz, eraikin berri batera aldatzeko zorian dago. 2008ko irailan irekiko dute Euskal Ikasketen Zentroaren eraikin berria. Han bertan izango da euskal liburutegia ere. Hitzaldi aretoa izango du, hamar-hamabi bulego... gauza ederra izango da, bai horixe! Atera kontuak zer zen 67an –alegia, nire bulegoa besterik ez–, zer gaur egun, eta zer izango den laster! Nire garaian, idazkaririk ere ez nuen! Nevadako parlamentuak berak ere ekitaldi instituzionala egin du maiatzaren 8an, 40. urteurrenaren karietara.

Zurekin ari eta beti ari gara euskaldunez. Amerikar antropologoaren artean ere “Mr Basque” zinen sasoi batean.

Lehenengo, Renokoa naiz. Renon sortua, bertan hazia, bertan bizi dena. Renotarra. Amerikarra. Zuk ikusita naukazu Renon. Han ez dago modurik ni gainerakoetatik bereizteko. Haietariko bat naiz. Ez daukat euskal jatorririk, hori esan dezadan nahi baldin baduzu. Hala ere, egia da zenbait antropologok “Mr Basque” deitu zidatela, Renoko Euskal Ikasketen Programaren koordinatzailea izan nintzelako hogeita hamarka urtez, eta hainbat lan ikertu eta argitaratu nituelako euskaldunen gainean. Baina beste interes batzuk ere izan ditut bizitzan...

Guk dakigunez, Euskal Herrian ez ezik Italian eta Australian ere nabarmendu duzu zeure burua landa lanean. Diasporaz ere jantzia zara. Meatzaritzaz, arrantzaz... artikulua eta liburuak idatziak dituzu. Gutxi begitantzen zait “Mr Basque” titulua...

Ez ezazu pentsa. Harritzekoa ere ez da titulua. Euskal gaia ardatza da nire lanean. Argitaratu ditudan liburu eta artikulua kontuan hartu eta seguru nago erdiak baino gehiago euskal gaiari dagozkiola. Seguru nago. Gainerako gai guztiak hartu eta ez dira helduko ekoizti dudanaren erdia izatera ere. Gainera, nire lehenengo identitatea, identifikazio bidea nahi baduzu, euskalduna izan zen eta badakizu zer gertatzen den askotan, lehenengo lanean ageri duzun identitatea nagusitzen dela ondorengo guztien gainetik.

Idazle askoren kasua da: lehenengo liburuak ezarzen die nola-halako identitatea.

Horixe gertatu zitzaion Robert Laxalti. *Sweet Promised Land* (Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan) izan zen ospea eman zion liburu, eta nahiko lan izan zuen haren itzaletik irtenen. Majo kostatu zitzaion. Berdin gertatu zait niri *Death in Murelaga* eta *Amerikanuak* liburuekin. Beste edozein lanean baino gehiagok euskal gaiak egin nau, osatu du nire irudi akademikoa, nahiz eta hari batere lotzen ez zaizkion hamaika lan ere argitaratu ditudan.

Iaz Euskal Herrian izan zinenean, adibidez, globalizazioaz jardun zenuen.

Hartaz aritzeko eskatu zidaten eta nire baitako gogoeta eskaini besterik ez nuen egin. Ez naiz globalizazio gaietako aditua, baina urte askoan migrazioak aztertzen jardun dudanez –emigrazioak, inmigrazioak, herrialde baten barne migrazioak eta

beste...– eta jende mugimendua globalizazioaren alderdi garrantzitsua denez, bada, neure ikusmoldea agertzeko moduan naiz.

Globalizazioa isilpeko amerikartzea dela adierazia duzu elkarriketaren batean?

Nik esana al da hori?

Bai.

Ez da gaizki esana. Bat natorrela esan nahi dut. Adibidez, multinazionalak eta multinazionalak daude. Amerikar multinazionalak han eta hemen dira, eta haien eragina ere halakoxea da Thailandian, Brasilen... eta beste hamaika lekutan. Aldi berean, amerikarrak ez diren multinazionalen eragina ere ikusita nago gure herrian, Renon bertan, eta alde handia dago batzuen eta besteen artean. Nokia Renon, adibidez, ez da McDonald's Frantzia bezalakoa. Renon inor ez da arduratuko Nokia amerikarra ez delako. Gaitzik egiten ez duen multinazionala da. Askok jakin ere ez daki Finlandiatik datorrena. Aldiz, McDonald's, Wallmart, Starbucks... atzerrian zabaldu eta eztabaida sutuak eragiten dituzte beti. Nik uste dut, hori, partez, gertatzen dela jende askok uste duelako globalizazioa amerikartze mozorrotutakoa dela. Beharbada hiperboliko samar ari naiz, gauzak puzten, baina egia ere baduela uste dut.

Erretiroan sartua zara, baina lanari utzi gabe...

Urte askoan unibertsitatean izan dut lanpostua. Erretiroan sartu baino bost urte lehenago, egun erdiz jardun nuen horretan, 33 urtez, unibertsitateko *Basque Studies Program*-en. Huraxe nuen lantegi lehena. Erretiratu nintzenean, konturatu ziren. “Urrezko erlojua” ematea esaten dugu ingelesez. Niri, egia esan, urrezko erlojurik ez zidaten eman, baina bai sinbolikoki. Aldi batez, erretiratu nintzela iruditu zitzaidan, nahiz eta zeharo egia ez izan. Ez daukat erretiratzeko izaerarik, eta unibertsitatean egun erdiz jardun nuenean ere hamaika egitekotan sartuta nabilen. Ez nintzen iristen, eta ez naiz iristen! Uste nuen erretiratu eta aldatu egingo zitzaidala bizimodua, baina bai zera! Hasieran, denbora tarte bat izan nuen, baina berehalaxe bete nuen beste konpromiso batzuekin. Nik diodanez, alde bakarra zera da, hilaren bukaeran ez didatela ordaintzen. Hori-xe aldea. Kar, kar, kar...

Hurrengo batean gustura hartuko nituzke hizpide kontu isilekoagoak... gure herri honen egoera, eta konponbidea...

Hurrengo batean beharko du. Oraingoz isilik egon behar dut. Hiru urtean ez nintzela horretaz mintzatuko agintzen zidan dokumentua sinatu nuen eta beste urte eta erdian ez daukat ezer esaterik. Zure “hurrengo batean” urte eta erdi barru izan beharko da. Orduan, bai.

Miel A. Elustondo
Idazle eta argazkilaria

Euskararen Erabileraren Normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundian

1. Aurkezpen gisa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Erabileraren Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusia (ENZN aurrerantzean) 1991n sortu zen. Lehendik ere euskaraz arduratzen zen atal bat zegoen arren, orduantxe ekin zitzaion modu sistemati-koan erakundearen barruko normalizazio lanari, bereziki Eusko Jaurlaritzaren 224/1989 Dekretuaren babespean.

Garai hartan Diputazioan 1.800 bat langile zeuden. Horieta- tik %12,5ek zuen bigarren hizkuntza eskakizunaren pareko maila eta %3,52k hirugarrenaren ingurukoa. Gaur egun, lan- gileen %27,33k du egiaztatua bigarren hizkuntza eskakizu- na, %26,31k hirugarrena eta %6,94k laugarrena.

2. Bi interbentzio maila

ENZN-n 1994an hasi ginen lehen programa pilotuak egiten. Urte hauetan guztietan hamaika lan egin ditugu. Eskarmentu horren ondorioz, bi normalizazio mailako egitura proposatu genion Diputatuen Kontseiluari, 20/2004 eta 21/2004 dekre- tuen bidez gauzatu zena.

2.1. Lehendabiziko maila: departamentu guztiek hizkuntza politika definitu beharra

Aipatutako lege arkitektura horren ondorioz, Foru Aldundi- ko departamentuek hizkuntza ofizialen kudeaketa plan zeha- tza aurkeztu behar dute urtero. Bestela esanda, hamasei arlo hauetan zein hizkuntza politika ezarriko duten definitu behar dute Diputatuen Kontseiluaren aurrean:

- Zerbitzu hizkuntzak.
- Lan hizkuntzak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruko komunikazio administratiboak.
- Herritarrekiko eta beste herri administrazioekiko harremanak.
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideen itzulpen irizpideak.
- Langileen etengabeko prestakuntza.
- Erregistroa.
- Diru laguntzak.
- Argitalpenak.
- Tresna edo aplikazio informatikoak.
- Internet eta Intranet sareak.
- Errotulazioa.
- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako jendaurreko ekitaldiak.
- Kontratazio administratiboak.
- Baimen edo lagapen administratiboak.

Urtearen amaieran kudeaketa plana autoebalatu behar izaten dute departamentuek. Aldi berean, ENZNk gaikako edo alorkako azterketak egin eta ondorioen txostena prestatzen du, praktika onak nabarmenduz eta zuzendu beharrekoak aipatuz; horretarako, lankidetzaz eskaintzen du.



Eginkizun honetan departamentuek dute ardura nagusia; ENZNk aholkularitza, koordinazio eta fiskalizazio lanak egi- ten ditu.

2.2. Bigarren maila: zerbitzu mailako erabilera planak

Hizkuntza ofizialen kudeaketa planak martxan jartzearekin batera, Foru Aldundiko zerbitzuak identifikatu ziren eta egu- tegi bat onartu zen. Egutegi horretan zehazten zen zerbitzu bakoitzak noizko onartu behar zuen Euskararen Erabilera Sustatzeko Berariazko Programa, AEBE metodologiari jarraituz, neurri zehatzak jasoko zituen.

Gaurko egunean, 38 zerbitzu edo unitatetan ditugu halako programak. Oro har, zerbitzu horietan ENZNk egiten ditu dinamizazio lanak eta zerbitzuan koordinazio eta jarraipen batzorde bana osatzen dira. Dauzkagun datuen arabera, gora- behera asko badaude ere, langune horietan lanaren %19 egi- ten da jatorriz euskaraz eta %38 euskaraz eta gaztelaniaz.

3. Etengabeko hobekuntza

Aurrekoetz gain, ENZN etengabeko hobekuntza lanetan dago murgilduta Kalitateko Departamentuaren laguntzarekin. Horrela, gure prozesu nagusiak identifikatzen eta hobetzen ari gara; diagnostiko, ebaluazio edo ikuspenerako tresnak prestatzen hasi nahi dugu; herritarren gogobetetze maila neurtzen hasi gara; eta, azkenik, hainbat “focus group” edo kalitate talde osatu ditugu, gure lankideek, Aldundiko gaine- rako langileek, gure lanari buruz zein ikuspegi duten ezagu- tzeke.

Joxean Amundarain

**Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusia
Gipuzkoako Foru Aldundia**

Ekonomia berriaren eragileak

Birmoldaketatik garapen eta berrikuntzara, ikerketan barrena

Ikerketa eta Garapena, horiexek dira ekonomia berriaren ezaugarriak, egungoa eta bihar-etziko definitzen dizkiguten terminoak, I+G, alegia. Dena dela, aurreko bie beste hitz bat erantsi behar izan diote adituek, ekonomiaren eragile nagusiak zein diren zehaztu nahian: Berrikuntza. Ondorioz, I+G+B (Berrikuntza) itxurapean birformulatu dute oraingo egoera.

Joan deneko hogeitun urtean erabat aldatu da Euskal Herriko industria. Orduko ekonomia jarduera zeharo zaharkitua zegoen, ez zuen lehiatzeko gaitasunik; oso zen kutsatzailea eta energia handia gastatzen zuen. Langabezia tasa %20koa zen. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu zuen hainbat enpresaren itxiera: gizarteak nekez ulertzeko moduko neurria. Birmoldaketa izan zitekeen garai hura hobekien definituko zuen terminoa. Garai berean, bestelako urratsak ere egin ziren, ordea, eta, besteak beste, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea sortu zen. Berrikuntza zen helburua. Azken urte hauetan, gora egin dute informazioaren eta komunikazioaren teknologia eta biozientzietan lan egiten duten enpresen kopuruak. Nanoteknologia da hurren datorrena...

Teknologia parkeak, ikerketa eragileak

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan teknologia parkeak dira garapenaren bultzatzaile nagusiak. 80ko hamarkadan, Arrasateko kooperatiben esparruko Ikerlan zentroa eta Labein laborategia, Bilboko Ingeniaritza Eskolari lotutakoa, izan ziren aitzindariak I+G arloan. Sasoi hartan, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila mundu zabalera begira hasi zen, industriaren krisiari aurre egiteko formula bila. Alemaniako Fraunhofer institutuaren sarea hobetsi zuen. Berez, ikerketa aplikatuan I+G aktibitateak garatzen dituzten zentro txikiak osatzen zuten sarea, eta industria sareari babes teknologikoa ematea zuten helburu. Haien arabera dira EAeko Teknologia Parkeen Sarea osatzen duten lau parkeak: Miñao (Araba), Zamudio (Bizkaia) eta Miramongo (Gipuzkoa) Teknologia Parkeak eta Arrasateko (Gipuzkoa) Garaia Berrikuntza Gunea.

Parkeok gero eta enpresa eta langile gehiago bildu eta gero eta fakturazio handiagoa dute. EAEn, ikerketan, garapenean eta berrikuntzan egiten den inbertsio osoaren %35 teknolo-

gia parkeotan egiten da; alor horretako inbertsioaren %50 parkeotako enpresek bultzatzen dute. 2006an, esaterako, 319 milioi euro inbertitu zituzten ikerketa, garapen eta berrikuntza jardunetan, fakturazio osoaren %12, alegia. Dirutza handi horren bidez 3.435 proiektu zehatz garatzen ari dira enpresak, eta zifra horiek biderkatzea espero dute. Hortik, beraz, alorrak duen garrantzia.

Sarea hazi

Egun, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresak Europar Batasuneko batez bestekoaren atzetik daude. Eusko Jaurlaritzaren asmoa da, aldiz, EAE erreferentzia izatea berrikuntza alorrean Europar Batasunean. Helburu hori gauzatzekotan, nahitaezkoa izango da Teknologia Parkeen Sarearen lana, bai eta parkeak haztea ere, parkeetako oraingo instalazioek ezin dituzte-eta enpresa gehiago hartu. Eta horretan ari dira.

Bizkaian, adibidez, bi urte barru Zamudioko Teknologia Parkeko instalazioak %50 handiago izango dira. Ezkerraldean, teknologia parke berria eraikiko dute. Miramongo Teknologia parkean lau eraikin berri egingo dituzte. Miñao Teknologia parkean, lursail gehiago erosi eta zortzigarren eraikina egingo dute. Dagoeneko Mondragon Korporazio Kooperatiba eraikitzen hasi da EAeko ikerkuntza gunerik handiena izango den Garaia Berrikuntza Gunea ...

Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza, egungo ekonomiaren ikur berriak.

Irakurri dugunez, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da EAE Europar Batasunean erreferentzia izatea berrikuntza alorrean. Helburu hori lortzeko bidean eredu garriak dira orrialdeotara bildu ditugun lau lagunen eginak. Haien egitasmo, ikerketa eta berrikuntza lanak erreferenteak dira, zein bere arloan, European ez ezik, baita munduan ere.



Adolf Valls i Soler

**Gurutzetako Ospitalea
Neonatologia unitateko burua**

Neonatologian haur jaioberri pisu txikikoak artatzen ditugu. Garaia baino lehen jaiotakoak ohi dira gehienak, hots, 37 aste bete baino lehen mundura etorritakoak.

Gurutzetako neonatologia unitatean lanean hasi eta galdera hau egin genion geure buruari: “Nola jakin zuzen ari garen?”. Erantzun bila, industriaren eredura jo genuen, *bench marking*-era, hau da, beste zenbait ospitaletako unitateekin konparatzera. Gurutzetan hasi ginen. Gero, Basurtokoak konbentzitu genituen. Txagorritxukoak, Donostiakoak hurrena... sare bat osatu genuen. Ondoren, Espainiako estatuko beste hogeita hamar unitate erakarri genituen geure proiektura, eta datuak elkarriz bidaltzen hasi. Horretan ari ginela, egitasmoa Europara zabaltzea bururatu zitzaigun. Proposamena egin genion Europar Batasuneko Osasun Zuzendaritza Nagusiari (GESANCO, Osasun Publikoaren eta Kontsumitzailearen Arretarako Zuzendaritza). European ez zegoen gurea bezalako eredurik. Herrialdeak zein bere gisa ari ziren...

Egun, hamahiru herrialde daude gure sarean sartuta. Guztira, hirurogei bat jaiotza unitate, Europa osokoak. Nire nahia, berriz, sarean berrehun edo hirurehun unitate biltzea da. Guk proiektua koordinatzeko zeregina betetzen dugu. Haur jaioberri goiztiarrrak dituen arrisku faktoreak zehaztu ditugu, zein erataro jokatzen dugun eta zer-nolako emaitzak biltzen ditugun. Aldagaiak adostu, definizioak hitzartu (denok zer beraren inguruan ari garela jakin dezagun) eta, finkaturiko definizio horien arabera, ospitale bakoitzak gaixoen datuak biltzen ditu eta Gurutzetara bidaltzen. Hemen datuok taldean bildu eta, horren ondoren, datu konparatiboak bidaltzen dizkiegu sareko partaideei.

Horrekin batera, beste gai bat ari gara lantzen, Osasun Zuzendaritzaren eskariz: gaixoen segurtasuna. Ospitaleak leku onak dira, baita arriskutsuak ere. Kontuan hartu haur jaioberrien gainean ari garela hizketan. Oso txikiak dira, denbora asko ematen dute ospitalean, infekzioen bat har lezake hemen... Ezinezkoa da infekzio guztiak saihestea. Arlo honetan ere, beste unitateekin konparatzera jotzen dugu.

Europako proiektu hau ikerkuntza epidemiologikoa da. Sarearen helburua, berriz, beste era bateko ikerketa egitea da, saiakuntza klinikoak eta abar. Beraz, ikerketaren bidean, sare asmo handiagoko baten lehen urratsa baizik ez da.



Pedro Migel Etxenike

**Donostia International Physics Center
Presidentea**

Donostia International Physics Center-en (DIPC) helburua da Euskal Herriko Unibertsitatean ari diren taldeen ikerketa jarduna ahalik eta nazioarteko bihurtzea, Fisika, Materia Kondentsatu eta Materialen Zientziari dagokienez. Zehatzago esanda, Kimika fakultatearekin eta CSICekin batera (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) osatu dugun talde mistoa nazioarteko egitea. DIPC aktibitate horren eragile eta bultzatzailea da.

Nazioarteko bihurtzeak zera dakar: munduan lanean ari diren ikertzaile bikainak erakartzea. Jendea gurera erakarri gabe ere, badago gure helburua beste era batera gauzatzeko. Alegia, gure arloan egiten diren nazioarteko lan bilera eta biltzar ttipietan hartzen dugu parte, mundu mailako lan talde onenekin, sareak osatzeko; *work shops* programa ezarria dugu, adibidez. Beste lanabes bat Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen duen Fellows Gipuzkoa egitasmoa da, kanpoan ari den “gure” jendea berreskuratzeko proiektua, hain zuzen ere.

Zientzia zabaltzea ere gure helburuetariko bat da, eta horren adibide gorenaren izan zen Einsteinen mendeurren ospatzeko Donostian egin zen kongresua.

Gure ikerketa lerroak Fisika, Materia Kondentsatua (polimeroak barne) eta beste zenbait dira. Berez, materiaren propietate optiko eta elektronikoko aztertzen ditugu, polimeroen propietateak, eta nola horiek hainbat eragileren barnekoak diren: dimentsionalitatea, tamaina, zergatik diren propietate horiek ezberdinak solidoaren barnean edo azalean, edo nano-egituretan. Lerro handia irekia dugu nanoteknologian. Izan ere, nanoteknologia ez da natura ikertzeko diziplina bat, eskala jakin bat baizik. Hortaz, Fisikari, Kimikari eta Biologiari dagokie eta berezkoa du diziplinartekotasuna.

Ikerketa egiteko hainbat bide ditugu, horietariko batzuk talde esperimentalak dira. DIPCn honelako gutxi egiten ditugu oraindik ere. Beste zenbait lekutan, ordea, horietariko asko egiten ditugu, baina emaitzak hemen, Donostian, aztertzen ditugu betiere. Era berean, eredu teorikoen bidez jarduten dugu, egingako esperimenduak interpretatzeko eta ondorengo esperimenduetuek baieztatu edo ezeztatuko dituzten propietate nahiz erabilerak aurreikusteko.

Gure azken helburua ulertzea da, gero erabiltzen jakiteko. Horrek ez du amaierarik, jakina. Ikerketa on batek bi galdera sortzen ditu lehen bakarra zegoen tokian. Bilaketa sekula ez da amaitzen. Nire ustetan, ezagutza handitzeak naturarekin beste era batera erlazionatzea ekarriko du. Aurrerantzean, natura ezin izango da etengabe ustiatu; baliabide gutxiago erabilia, gehiago egiten ikasi beharko dugu. Eta hori ez dugu ikasiko, materiaren portaera era guztietara eta egoera guztietan ulertzen ez badugu.



Agustín Sánchez Lavega

Fisika Aplikatuko katedraduna
Zientzia Planetarioko Taldearen zuzendaria
EHU/UPV

Zientzia Planetarioen Taldeak bi helburu zientifiko ditu: alde batetik, eguzki sistemako gorputzen atmosferak aztertzea; bestetik, 1995az gero zenbait izarren inguruan aurkitzen ari diren Eguzkiz haragoko planetak ikertzea. Taldeak egoitza du Bilbo-ko Ingeniaritzako Goi mailako Eskola Teknikoaren Fisika Aplikatuko I. Sailean.

Planeten atmosferak berezko laborategiak dira, gure atmosferan gertatzen diren prozesuak egoera fisiko eta kimiko jakinetan ikerzeko bidea ematen dutenak; ez daukagu prozesuon berri zehatzegirik edo aurreikusten zailak izan ohi dira. Gure planeta sistemaren era guztietako atmosferak ditugu, bai planetetan bai haien sateliteetako batzuetan. Venus eta Marteko atmosferak karbono dioxidoa dute osagai nagusia; horrek, Venusko eguratsean berotegi efektu ikaragarria eragin eta azaleko tenperaturak 400°C-ra igoarazten ditu. Saturnoko satelitea den Titaneko atmosfera aberatsa da nitrogenoan –Lurrekoa bezainbat– eta hidrokarburo ugari ditu; gainera, atmosfera honetako metanoaren likido-gas-solido zikloa Lurreko urak daukanaren antzekoa da, baina hori bai -180°C-ko tenperatura inguruan. Jupiter, Saturno, Urano eta Neptuno planetetan hidrogeno atmosfera sakonak ikus ditzakegu, beren erradioaren zati handia hartzen dutenak, hain zuzen. Sortzen diren hodeiak oso dira ezberdinak: azido sulfurikoa Venusen, amoniakoa Urano eta Neptuno planeta erraldoietan eta metano nahiz hidrokarburoak Titanen. Gainera, planeta hauetan ardatzekiko errotazio abiadurak oso bestelakoak dira; muturreko bi adibide ematearren, Venusek 243 egun behar ditu itzuli bat egiteko eta Jupiterrek, aldiz, 10 ordu. Horrek mugimendu bariatate handia dagoela esan nahi du: Venusek Mendebalderanzko super-errotazioa du 360 km/h-ko haizetee-kin, Saturnok 1.800 km/h-ko haize zorrotada ekuatorerantz, eta gainerako planetek Ekialde eta Mendebalderanzko txandakako haize zorrotadak. Gas horien barnean fenomeno meteorologiko bortitzak gertatzen dira: ekaitz erraldoiak, zurrumbilo turbulentuak (zikloniko eta antiziklonikoak) eta uhinak.

Gure ikerketa taldeak gertakari horiek guztiak aztertzen jardun du orain artean. Horretarako, behaketak egin ditu Lurrean kokatutako teleskopio bidez (Lurraren orbitan dagoen Hubble teleskopio espaziala erabiliz) nahiz NASA eta ESAko espazio misioek eskainitako datuen bidez (Venus Express, Voyager, Galileo eta Cassini planeta erraldoietan). Horien azterketa eta interpretazio teorikoa egiteko, zenbait ordenagailu programa erabiltzen ditugu, gehienak taldeko kideek garatutakoak. Ikerketaren ondorioz, gure lanetako batzuk ospe handiko aldizkari zientifikoetan argitaratu izan dira, esate baterako *Nature*-n eta *Science*-n. Bi horietan, azalean eman dute gure lanen berri behin baino gehiagotan.



Eduardo Anitua

Biotechnology Institute eta BTI I+G
Zuzendari zientifikoa

Azken hamarkadan Biotechnology Institute-k (BTI) ikerketa eta garapen ahalegin handiak egin ditu, bi arlo zientifiko estrategikotan batez ere: aho inplantologian eta medikuntza birsortzailean.

Egun, BTI ezagun egiten duen arloa PRGF (Plasma Rich in Growth Factors) teknologiaren garapena da; esparru horretan aitzindaria dela esan daiteke. Plasma autologo hau erabateko iraultza izan da orbanak arintzeko, ehunak birsortzeko eta gihar nahiz hezurdurako gorabehera askoren tratamendu kirurgikoan (tendoi, gihar eta lotailuetako lesioak). Haren aldakortasuna oso handia da; esate baterako lau prestakin mota garatu dira gaixoa- ren beraren odoletik abiatu- rik. Hori guztia dela eta, PRGF teknologia hainbat diziplina medikotan erabiltzen da, dela kirol lesioen kasuan, aho inplantologian, ultzera kronikoen tratamenduan, estetikan, oftalmologian, etab. Egun, gure ikerketa nagusietako bat PRGFk artrosiaren tratamenduan izan lezakeen eragina aztertzea da.

BTIn daukagun beste giltzarrietariko bat hortzetako inplanteak garatzeko eta hobetzeko lana da. Horretarako, zenbait lan talde ditugu, elkar lotuta; talde horien zeregin nagusiak ondokoak dira: lehenik, inplanteen azala eta diseinua hobetzea; bigarrenik, haien jokabide biomekanikoa aztertu eta optimizatzea; azkenik, eraginkortasuna eta segurtasuna ebaluatzea animaliekin egiten dituzten *in vivo* azterketen bidez. Gure ikerketa lerroen sinergiatik (inplanteak + PRGF) azal bioaktiboko inplanteak sortu ditugu, odontologian mugarriak direnak. Inplanteen azalean proteinaz eta PRGFtik datozen hazkunde eragilez egindako nano-mintz bat eratzen da eta horrek hezurren integrazioa eta inplanteen egonkortasuna areagotzen du.

Ikerketa eta garapenari dagokionez, nazioarteko hamabost patente ditugu, guztiak indarrean eta industrializatuak. Europan denik eta hortzetako inplante sistemarik garrantzizkoena garatu dugu, munduan ere punta-puntakoa dena. Gure bi ikerketa lerroek (hortz inplantologia eta terapia birsortzailea) odontologiari nola- baiteko iraultza ekarri diotela esan daiteke.

Jon Arizkun
Kazetaria

Erdarazko ezker-izenondoan euskarazko baliokideak

Euskaraz zein inguruko erdarez, izenondoek kokagune jakin bat dute izenarekiko, salbuespenak salbuespen. Ingelesezt, izenaren ezkerrean doaz izenondoak, ia-ia beti (erabat markatua da eskuin-erabilera). Euskaraz, eskuinean beti (itxuraz salbuespen direnak bestela kategoriza daitezke). Gaztelaniazt eta frantsesezt, bietan berdintsu, eskuinean abiapuntuz, baina maiz ageri dira ezkerrean ere.

Bigarren aukera hori sarri baliatzen duten hizkuntza horietan, izenondoaren oinarritzko esanahiaren aldaketa handi-txikia ekar dezake, eta ekarri ohi du, kokaera aldatze horrek¹.

Aurrera gabe ere, beraz, lehen ondorioa atera daiteke: kokaerarekin loturiko bigarren esanahi hori bereizi behar denean, beste prozeduraren bat erabili beharko du itzulpenak, ezinbestean, euskararen (edo ingelesaren) kasuan bezala kokagune bakarra behartua denean.

Kontua, bada, hortik aurrera, hizkuntzotan izenaren ezkerrean kokaturiko izenondoan esanahi-aldaketa hori nondik nora doan zehaztea da. Kasuistika osoa jorratzeak luze joko luke, baina kasurik (proto)tipikoenak bederen aski labur azal daitezke².

Lehenengo eta behin, izenondoan beren semantikak ezartzen ditu bereizkuntza eta muga funtsezko batzuk.

Balioespena adierazten duten eta, bereziki, hari atxikirik enfasia hartzeko joera duten izenondoek ez dute aldatzen esanahia, eskuinean zein ezkerrean joan. Aldea, beraz, estilistikoa baino ez da, eta ez da konpentsatu behar itzulpenean: “magnífico” (bikain), “maravilloso” (zoragarri)...³

Batzuetan, esanahi deskriptibo soila eta balioespen enfatikoa lehian dabilta izenondo berean, eta anbigua gertatzen da halako izenondoa eskuineko kokagunean (ezkerrekoan nekez uler daiteke esanahi deskriptibo hutsa): “película fantástica” (fantasiazkoa/ederra). Euskaraz ere antzeko anbigutasuna ageri dute izenondo batzuek: “film izugarria/

ikaragarria/beldurgarria”. Bistan da, beraz, izenondoaren semantikak berak eragina dela esanahi-bitasun hori, eta ez joskerak.

Halako esanahirik berez (edo hain modu markatuan) ez duten izenondoak, berriz, balioespen- eta enfasi-adiera horretaz jantzi ohi dira ezkerrean kokatuz gero (ez dute izenondo guztiek onartzen halakorik):

“nube negra” / “negra nube”
 “barco pequeño” / “pequeño barco”
 “médico honrado” / “honrado médico”...

Itzultzailearen lana da erabakitzea ea, pasarte jakinean, gorde beharrekoa den enfasi-ñabardura, betiere jakinik ezin duela prozedura beraz jokatu ezker-izenondook euskaratze-ko. Ñabardura ematea dagokiola erabakitzen badu, lexikoan-eta bilatu beharko du baliokidetasuna: “hodei beltz-beltz”, “ontzi koxkor”, “prestutasun handiko mediku”...

Diogunetik beretik ateratzen da gerta daitekeela baztertzeko modukotzat jotzea inoiz ñabardura, baina ondo jabetuta egon beharra dago bi izenondo desberdin direla, nolabait esateko, eskuinean kokatua eta ezkerrean kokatua, eta ez dagoela euskaraz biak itsuki berdinean ematerik beti.

Beste izenondo batzuek, azkenik, aurrekook baino harago jo, eta zeharo aldatzen dute esanahia ezkerrean kokatuz gero (testuinguru jakin batzuetan behintzat):

“pobre/gran (hombre)”
 “(ni un) triste (mendrugoa)”
 “olímpico (desprecio)”
 “(unos) simples (alicates)”
 “curioso animal”
 “valiente estupidez” ...

Berriro ikusten dugu nolabaiteko enfasia dutela halako ezker-izenondoek; kasu honetan, hala ere, horrekin batera, atzean geratu da eskuin-izenondoaren esanahi oinarritzkoa, eta beste bati utzi dio lekua. Halako batzuk oso sistemati-koak dira, eta kalko okerren iturri sarri gertatzen dira:


“un nuevo saque” (beste bat, ez *berri* bat),
 “diferentes autores” (zenbait egile, ez *desberdin* batzuk)
 “los distintos barrios” (kasuan kasuko auzoak, ez *desberdinak*)...

Azken adibide horretan ikus daiteke nola eragiten duen halakoan esanahian testuinguru gramatikalak ere: “diferentes/distintos/diversos candidatos” erabili, edo “los diferentes/distintos/diversos candidatos”, oso gauza desberdinak adierazten ditugu, artikulua gorabeheran (zenbait/guztiak).

¹ Bada izenondo bereziren bat ezkerrean baino kokatzen ez dena: “(un) mero (accidente)” (ezbehar hutsa, ezbehar bat baino ez). Izan ere, “mero” izenondoak ez du esanahi deskriptibo oinarritzorik, eskuinean joateko.

² EIMaren Estilo Liburuaren bigarren atala den *Kalko okerrak* liburu-kan jorratua dut jada gai hau, eta hartara jo dezake irakurleak honen osagarri modura.

³ Semantikaz beste muturrean dauden beste batzuek ere (besterik gabe erlazio bat adierazten baitute, balioespenik eta enfasirik gabe) adiera bera dute eskuinean zein ezkerrean joan: “el correspondiente permiso” = “el permiso correspondiente” (dagokion baimena). Kasuan-kasuan ikusi behar. Esate baterako, “próximo (= siguiente, que viene)” ezkerrean ohi doa; “próximo (= más cercano)”, berriz, eskuinean.



Esanahia zeharo aldatu-rik izenondootatik kanpo ere, erabaki-garri gertatu ohi da, hain zuzen, artikulua- ren presentzia, orain arte aipatu ez dugun oposizio sistematiko samar bat sortzen baita hura tartean dela, bi kokaguneak onartzen dituztenetarikoa bada izenondoa⁴:

“la pelota pesada” (piloten artetik hori: *zein* adiera)

“la pesada pelota” (pilota, zeina halakoa baita: *nolakoa* adiera)

Aurrekoetan bezala, ezkerreko kokagunearekin loturik dago enfazizko adiera; horrez gainera, ordea, oso funtzio desberdinetarako erabiltzen da molde bakoitza: eskuinekoan, ezaugarri bat aipatuz pilotaren erreferentea identifikatzeko (*zein*); ezkerretan, aparte eman litekeen tarteki moduko bat txertatzeko (*nolakoa*).

Euskarazko izenondo askok arazorik gabe onartzen dituzte bi adierak, testuinguruak erabakitzen baitu: “pilota astuna” (pilota hori, astuna dena / pilota, zeina astuna baita). Hala ere, kontuz ibili beharko dugu, testuinguru batzuetan eta izenondo jakin batzuekin, nahi ez dugunik ez adierazteko. Jakina, marka berezirik ezean, oinarritzko esanahia nagusituko da, enfasirik gabea eta, azaltzen ari garenez, artikulua tartean bada, zehazte-funtzioan (*zein*):

“Hor erosi dute auto dotorea”.

[*zein*: autoetatik dotorea dena / *nolakoa*: autoa, zeina dotorea baita]

Bada bide bat baino gehiago, behar izanez gero, adiera hori nagusitu ez dadin. Bide hoberik ez denean, bereiz eman beharko da izenondoa:

“La pesada pelota cayó por el agujero”.

[Pilota, astuna oso, zuloan barrena erori zen].

Beste batzuetan, berriz, aski da ukitu txiki bat, hala nola erakusleaz ordezte artikulua: “Recordó la oxidada bicicleta de su abuelo” (Aitonaren bizikleta herdoildu hura gogoratu zitzaion).

Gogoraz dezagun berriro, hala ere, ez dutela izenondo guztiek halako jokorik onartzen beren semantikaz, asko eta asko baitira, edo (ia-ia) beti deskriptibo hutsak (pilota urdina), edo (ia-ia) beti balioespen-enfasidunak (pilota zoragarria). “Urdin” izenondoak (edo “azul”ek) nekez hartuko du balioespen-enfasirik, eta “zora-

garri” izenondoa, berriz (edo “maravilloso”) nekez izango da zehaztailea (zein pilota? > pilota *zoragarria, ez bestea). Horrenbestez, gehienez ere, “oso” graduatzailearen balioa har lezake, inoiz, ezkerretatuak (hots, deskripzioari dagokion intentsitate-enfasia, ez hainbestean balioespeneko):

?“azul pelota” (= ?pelota muy azul)

Panoramikaren ondoren, laburbil dezagun auzia, ondorio orokor batzuk ateraz.

Erabateko esanahi-aldiera aski nabarmena izaten denez, errazago detektatzen dugu, eta, beraz, txikiagoa da halakoetan arriskua kalko okerrean erortzeko, hots, oinarritzko esanahiari dagokion balioidea emateko euskaraz, bigarren esanahiaren orde, hura izanik hor egoki.

Handiagoa dugu arrisku hori esanahi-aldiera funtsezkoa bai baina hain erabatekoa ez denean (parentesi artekoek esanahiak bereizten laguntzea beste asmorik ez dute):

“mujeres grandes” / “grandes mujeres” (bikainak, ez handiak)

“el río pequeño” / “el pequeño río” (kokorra, ez txikia)

“un anuncio nuevo” / “un nuevo anuncio” (beste bat, ez berri bat)

“teorías diferentes” / “diferentes teorías” (zenbait, ez desberdin batzuk)

“(las) teorías diferentes” / “(las) diferentes teorías” (kasuan kasukoak, ez desberdinak)...

Adibideetatik ikus daitekeenez, izenondoarekin zer izen doan, haren arabera erabaki ohi da halako esanahi-jokoen aukera. Konbinazioetariko batzuk estereotipatu samarrak dira, eta ia lexikalizatuak daude (“pobre hombre” baina ez “rico hombre”); beste batzuk, berriz, eskema beti aplikagarri bati dagozkio, nahiz eta emaitza batzuk (onerako zein txarrerako) harrigarri samarrak gertatu: “sus pecuniarios intereses”...

Hemen, horretan sakondu gabe, sarri aurkitzen diren erdarazko izen+izenondo eta izenondo+izen kontraste adierazgarri batzuk hartu ditugu hizpide, eta eskuin-ezker aldaeren eragina ikusi.

Itzulpenean, ikusi dugunez, askotariko irtenbideak ditugu oinarritzotik aldatzen diren esanahiak adierazteko⁵. Gakoa, bistan da, jatorrizkoan ezker-izenondoek duten berezitasunaz jabetzea da, hori kontuan hartu gabe ez itzultzeko. Arreta kontua da, beraz, ez baitago halakoetan ezer ezkuturik, hiztun arruntak atzeman ez dezakeenik, arazorik gabe erabiltzen baititu izenondo egokiak, bi posizioetan erdaraz eta batean euskaraz.


Ez ahal da, bada, izango itzultzailea hiztun arrunta baino motzago!

Juan Garzia

⁴ Erdarazko perpaus erlatiboetan ere garbi bereizten dira bi egiturak, koma batez: “la pelota que es pesada” / “la pelota, que es pesada”. Oro har, komadunaren sinonimo gertatzen da ezker-izenondoa halakoetan. Euskaraz, ez da harriztekoa ez izatea halako paralelismorik, ezker-izenondorik batere ez izanik (eta “erlatibo esplikatiboak” ere, komadunak, askoz ere markatuagoak eta bakanago erabiliak izanik). Erdarazko moldeak beste itxura bat ematen dien arren, *beste esaldi baten* balioa dute, bai “erlatibo esplikatibo”ek eta bai ezker-izenondoek (gainerakoaren alboiruzkin bat dira).

⁵ Ikus *Kalko okerrak*.

EKLIPSEA



Hamaikak eta hogeita bost dira Garbiñeren ordenagailuan. Kalkulatuta dauka. Minutu baten gorabehera izaten da, baina ez du hutsik egiten. Burua jiratu, eta hortxe aurkitu du, indar betean. Ipurdiarekin bultza eginez, atzera eraman du aulkia, eta pertsiara itxi du, zakar.

Denetarik probatu du eguzki islak saihesteko: ordenagailua eskuinerago ekarrita, ezkererago eramanda, baita A-4 motako orri pakete bat azpian jarrita ere. Baina alferrik izan dira saio guztiak. Azkenean, gortinak jartzeko eskatu dio erosketen arduradunari. Baina zain dago oraindik, aurrekontua onartu behar baitute lehendabizi.

Okerrena da ohitu egin dela argi artifizial horretara, eta orain itsutu egiten duela egun argiak lanetik ateratzean, bizidunen mundutik erauzi izan balute bezala. Leize-zulo batetik atera berria balitz bezala sentitzen da, eta iruditzen zaio beste mundu batekoa balitz bezala begiratzen diola beso eta zango bistan dabilen jendeak. Deseroso sentitzen da orduan bere jantzi zabaletan uzkurtuta, eta pauso azkarren ematen ditu, bere gordelekura lehenbailehen iristeko. Hori ere azkenaldian zulo beltz bat da, ordea, eta ezin ditu pertsiarak zabaltu ere egin, amona garrasika hasten baitzaio imintzioa egite hutsarekin.

Hogeiren bat gradu egingo ditu kanpoan, baina fresko antzean sumatzen da bulegoan gelditua egonean egonda. Horregatik, oraindik jertse lepo-luzea jantzia etortzen da Garbiñe, ia egunero. Eguzkiarekin lehian ateratzen da etxetik, zazpiak inguruan, eta ordu horretan hotzak badaki zirrikitu guztietatik hezurretaren bidea egiten. Miren, berriz, administrari laguntzaile berria, ia-ia hondartzarako moduan etortzen da, eta Garbiñek ez du ulertzen nola egon daitezkeen biak bulego berean, bata arropa baino gorputz gehiago agerian duela, eta bestea justu-justu burua arropen artean erakusten duela.

–Eklipsearen ordua –bota du Mirenek. Ika-mika luzean ondoren, azkenean onartu du Garbiñek ezin duela lan egin Eguzkiaren islek begietan jotzen diotela, eta jostalari dagoenean bakarrik zirikatzen du bere ateraldiekin.

Garbiñek pentsatu du Eguzkiarekin baino gehiago parean daukaten arkitekto bulegoko intelektual itxurako horregatik esan duela eklipsearena, baina isilik gelditu da. Tokiko gobernu batzarreko akta bukatu behar du, gaur bertan egin nahi baitu idazkariak hurrengo bilerarako deialdia. Ez du, beraz, denbora askorik, ondoren itzultzaileari pasatu behar baitio, eta badaki haren purrustadak entzun beharko dituela garaiz ez bidaltzeagatik, egiten ari den lana utzi eta hori beste ezerean aurretik itzuli beharko duelako, erlojupean itzuli ere.

–Astronomoei deitu beharko diegu, hemen gertatzen den fenomeno paranormala azter dezaten –akuilua zorrotz gaur Mirenek.

–Zertaz ari zara? –erretxindu da Garbiñe.

–Eklipsea egunero gertatzen den munduko toki bakarra dela hauxe –serio plantak egin nahi izan ditu hori esatean, baina ezin izan dio irribarreari eutsi.

–Miren, lanpetuta nago.

Garbiñek gogoko du Miren. Neska alaia da, kaskarina batzuetan, eta ahoberoa ere bai zenbaitetan, baina bizigarri dosi baten moduan behar du horrelako norbait ondoan. Arratsaldekoa hobeto eramateko.

Gaur amona nola aurkituko duen pentsatu du. Hitzik egingo ote dion. Jaio zenetik bizi izan da Garbiñe amonarekin. Orain, ordea, berari dagokio hura zaintzea, eta ez daki horretarako balio duen. “Joxe Manuel Ormaberrikoa, hura bai gizona” da azkenaldian esaten entzun dion zentzuzko esaldi bakarra. Baina Garbiñek ez daki nor demontre zen Joxe Manuel Ormaberrikoa, eta ez dauka nori galdeturik ere. Adelari galdetuko lioke, baldin eta modurik txatxuean erori eta aldaka hautsi ez balu.

Amonak nabarmen egin du okerrera Adelarena gertatu zenetik. Ez du egun argia ikusi ere egin nahi, beti beltzez jantzen da, egunero garbituta ere kentzeko modurik ez dagoen usain min bat dario, eta euskara ez diren soinu bitxi batzuk egiten ditu, saguzarren hizkuntzan beharbada esanahia izango dutenak.

Garbiñe arratsaldero saiatzen da amona etxe azpiko parkeara ateratzen, egurastu dadin, baina kalera doazela sumatzen duen bakoitzean, amonak ezin askatuzko korapilo bat egiten du bere gorputz-besoekin, eta ezetz egiten du buruarekin, begiak zulotik aterata.


Hasieran ezinezkoa iruditzen zitzaion arren, amonaren gainbehera horretara ohitzen hasia zegoen Garbiñe, baina atzokoa gehiegi izan zen. Bainuontzian aurkitu zuen amona, bil-bil eginda, dardarka. Handik atera eta lasaitzea lortu zuenean, komunera joan, eta behetik gora hustu zuen hesteak korapilatzen zizkion laborria.

Gero Marinari deitu zion, eta hark eman zion ekuadortararen telefonoa. Gaurko egin du hitzordua, baina badaki amonarenak ez duela erremediorik; onenean ere, hilabete batzuetan ez duela okerrera egingo.

Pentsamendu horiek nekez uxatu dizkiote aurikularrek, baina burua beste ahots batzuez bete diote. Hogeita hamabost minutuan bukatu du akta, eta itzultzaileari bidali dio, idatzitakoa irakurri ere egin gabe. Arnasa hartu du gero.

–Hemengo fenomenoak ikertzen dutenean, gure etxera eramango ditut, astronomoak, diot –eta ordenagailuaren eskuinertara pilotuta dauzkan txostenetako bat hartu du.

Maidar Ziaurriz



IKEAn hartutako planoaz ahalegintzen gara askotan Leroy Merlinen erositako altzaria muntatzen. Ba, begira, aizu! Planoan zulotxoak agertzen da, eta hemen ez dut nik holakorik ikusten! Eta torloju hauek lodiagoak dira, eta ez dira sartzen! Baina, ez da ezer gertatzen. Bultza pixka bat harantz, kendu zati bat hemendik, eta torlojuak, biraka sartu beharrean, jo mailuaz, eta, azkenean, sartuko dira. Ikusten?!

Horrela ibiltzen gara maiz euskaraz ere, erdal planoari begira, euskal hitzak mailukadaz elkarri lotu nahian. Har dezagun, esaterako, oso plano ezaguna: “Educación Infantil y Educación Primaria”. Gaztelaniaz, gehienetan, pieza bat aurreztu, eta honela osatzen dute altzaria: “Educación Infantil y Primaria”. Oso ondo. Bagatuz gero gu, eta, plano bera erabilita... “Lehen Hezkuntza”, batetik, eta “Haur Hezkuntza”, bestetik; biak batuz gero: “Lehen eta Haur Hezkuntza”. Baina “Lehen” eta “Haur” maila eta izaera bereko hitzak al dira, bada? Ez dut uste! Inoiz ibili dira nonbait mandoa eta idia uztarri berean, baina... ez al da hori azak eta babak nahastea? Ez dakit, ba!

Eta, honi lotuta, sekula ulertuko ez dudan beste kontu bat: arrandegian zain zaudela, dendakoak zure atzetik etorri den bezeroari egin dio kasu zuri baino lehenago. Zer dela eta? Jakin liteke? Hemen ere antzeko zerbait gertatzen da. Ordena kronologikoan “Haur Hezkuntza” da lehenago (3-6 urte bitartean) eta “Lehen Hezkuntza” geroago (6-12). Zergatik, orduan, ordena aldatu eta, txanda-pasa eginda, “Lehen eta Haur Hezkuntza” alderantziz jarri? Bada, seguru aski, baten bati senak min pixka bat eman ziolako belarrarian benetan zegokion ordena entzundakoan: “Haur eta Lehen Hezkuntza”.

Beste urrats bat eginda, zer gertatuko litzateke, hurrengo batean plano korapilatsua hartuz gero? Esaterako, beste hau: “Educación Preescolar, Infantil y Primaria”. Gaztelaniazko plano horri jarraituz, eta euskal osagaiak hartuta... “Eskolaurreko, Haur eta Lehen Hezkuntza”? Denak multzo berean, nahasian, betiko adiskide minak balira bezala? Zein da konponbidea? Seguru aski, denak deklinatuta elkartzea izango da onena: “Eskolaurrekoen, Haurren eta Lehen mailako Hezkuntza”. Edo “Hezkuntza” hitza jarri beharko dugu osagai bakoitzean (luze samarra, agian?). Zaila izan arren, geure planoak erabili behar ditugu, euskaratik euskarara egindakoak. Bai, bai! Gauden mundu honen erdian egonda, sarri zaila izaten da benetan!

Itxuraz, behintzat, matematikan errazagoa da “izendatzaile komuna” zein den asmatzea. Baina, hizkuntzan ere berdin

joka daiteke? Alegia, egoera guztietan egin al daiteke elipsia, hitza edo esamoldea bi aldiz (edo gehiagotan) errepikatzen denean? Hona hemen, ildo beretik, beste adibide-pare bat, gainetik aipatuta bada ere.

Egokia al da, esaterako, bi egitura hauek bakar batean elkar-teea? Askotan agertzen dira era honetako esamoldeak gaztelaniaz: “En nombre y representacion del testigo”; “Noren izenean” eta “Noren ordeztu” egiturak elkartuta, euskaraz ere antzera eman daitezke, erdarazkoari jarraituz? “Lekukoaren izenean eta ordeztu”? Nahiz eta luzeagoa izan, “lekukoa” bietan aipatzea, horixe onena. Honako hau ere oso ezaguna da, baita euskaraz ere: “Goian aipatutako lekuan eta egunean”. Zilegi da? Eta deklinabide-kasua aldatuz gero? “Preséntese con el testigo y en la fecha arriba indicados”; euskaraz honela? “Bertara zaitez goian zehaztutako lekukoarekin eta datan”? “Lo dijo desde su punto de vista y parecer”, “Bere ikuspuntutik eta iriziz”?

Eta, aurrerago joanda, egokia al da euskaraz hitz berari bi elementu edo gehiago lotzea deklinabide-kasu ezberdinak erabilita? Hor daukagu, esaterako, “Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia”, euskaraz honela emana: “Giza Eskubideen eta Justizierekiko Lankidetzarako Zuzendaritza”. Honek konponbide erraza du, kasu bera erabilita: “Giza Eskubideen eta Justizierekiko Lankidetzaren Zuzendaritza”. Honako hau ere antzekoa da: “Profesorado de extraescolares y de comedor”. Euskaraz inoiz honela agertu da: “Eskolaz kanpoko jardueren eta jantokirako irakasleak”. Ez al da egokiagoa, esaterako, honako hau: “Eskolaz kanpoko jardueren eta jantokiaz arduratzeko irakasleak”?

Edo egokia al da aditzak eta substantiboak maila berdineko egitura berean elkar-teea? Adibidez: “Telebista ikuskatzeko eta kontrolerako laguntza teknikoak” (Asistencia técnica para la inspección y control de televisión). Nire ustez, hobe da biak aditzak edo biak substantiboak izatea, alegia: “Telebista ikuskatzeko eta kontrolatzeko laguntza teknikoak” edo “Telebista-ikuskapeneko eta -kontrolerako laguntza teknikoak”.

Orritxo honetan ezin izan dut gehiago eraikei. Azken batean, ohartxo bat besterik ez da. Hizkuntza-planoen artean gabiltzanean beti izan behar dugu buruan zein lur-sailetan gabiltzan; argi eta garbi izan behar dugu zein material erabili behar dugun, eraikei beharreko etxe hori ederra eta sendoa izan dadin. Beraz, ahal dela behintzat, bakoitzari berea, hori baita legea.

Manu Arrasate
Itzultzailea

Euskal Herria prest al dago turistak hartzeko?

Uda dator eta, harekin batera, turista ugari helduko dira gurera. Euskal Herriko txoko eta bazterrak bete eta eguneroko giza paisaiak bestelako kolorea hartuko du. Turismoak dirua eta bizitasuna ekartzen dizkigu, baina Euskal Herriko egiturak prest al daude bisitari guztiak hartzeko? Egoki planifikatuta al dago gero eta garrantzi handiagoa duen sektore hau? Zer-nolako turismo mota nahi dugu Euskal Herrian? Lau adi-turi eskatu diegu gai honi buruzko iritzia.



Aitor Apraiz
Itsas Lehor turismo
enpresa
Gerentea

Euskal Herriko egiturak ez dira oso zabalak eta horretara moldatu behar. Udan bete egiten dira, baina egiturak ezin dira sortu uda bakarrik kontuan hartuz, urtea oso luzea baita. Jakin beharko dugu zein neurritan landu nahi dugun turismoa eta horri egokitu. Nire iritziz, lan hori ez dugu oraindik

egin. Datozenak datoz eta kito. Euskal Herriak turista mota asko har ditzake, hemen baliabide berezi ugari ditugu eta. Etekin hobek ateratzeko, arlo hori ere planifikatu beharra dago eta turista mota bakoitzari baliabide ezberdinak eskaini eta hurbildu, mezu egokituak eta zehatzak erabiliz. Eta, egia esan, turismo hori erakartzeko bidean gabiltzala uste dut; politika egokiak bultzatzen ari gara. Ez da erraza, baina. Nire ustez, hala ere, ez dugu behar bezala planifikatzen eta, sarritan, usteetan oinarritzen gara. Zenbait arlotan ondo egin da lan, Bilboko apustuari eta beste hiriburuetako turismoari dagokionez, esaterako, baina gainerako eskualde edota herrietan arrakasta horren bila ari gara. Egia da hiriburuak erakargarriak direla eta turistak hurbiltzen dituztela Euskal Herria, baina ezin gara horren begira egon, besterik gabe. Landa turismoak, ekoturismoak, itsasertzeko turismoak (surfa, itsas jarduerak, hondartza)... bakoitzak bere bezeroak ditu eta horiengana heltzeko bide bereziak ere landu behar dira. Euskal Herriak badu, gainera, baliabide ezin hobea hori bultzatzeko: gure identitatea, guztien artean ezberdin, berezi eta erakargarria. Gure kultura eta izaera produktu bihurtu beharko genituzke eta horri etekin handiagoa atera, batez ere eskualde eta herrietan.

Bestalde, turismoak sor ditzakeen arazoengatik (trafiko gorabeherak, jende pilaketak..) esan beharra dago oreka hori ez dutela turistek apurtzen, are gutxiago Euskal Herrian. Ez diezaiozun turismoari erririk egotz. Planifika dezagun zenbat eta zeintzuk ekarri nahi ditugun, zein lekutara eraman nahi ditugun eta zeintzuk jarduera eskaini nahi dizkiegun. Oreka geuk lortu behar dugu, bestela datorrena dator eta hor konpon...



Rafael Ugarte
Arabako Ostalaritza
Elkartea
Gerentea

Ostalaritzak gero eta argiago dauka turismoak eragin positiboa duela. Establezimenduen ekipamenduak gero eta hobek dira eta hona datozenen aurreikuspenak asebetetzen ditugulakoan nago. Era berean, ostalaritzak erakundeen laguntza handiagoa behar du. Administrazioen ahaleginak ez dira sektoreko profesionalok egiten dugun esfortzuaren bezainbestekoak. Gu beti ari gara aldaketetara egokitzen, baina erakundeek eskakizunak gehitu eta legeak sarri aldatzen dituzte, aldaketa horiek bideratzeko beharrezko diru laguntzarik eman gabe.

Euskadin nahi dugun turismoari dagokionez, mota guztiak hartzeko prest egon behar dugula esango nuke. Egia da gurera etortzen diren turistek maila sozioekonomiko ertain edo handia dutela, baina, datozenak datozela, turisten jokabide eta portaerak gizalegezkoak badira, ongietorriak izango dira betiere. Turismoa erakartzeko ekimenak gero eta ugariagoak dira eta behar-beharrezkoak, gure erakargarritasuna munduari saltzekotan. Hala ere, lurralde bakoitza bere aldetik saltzen da. Erakargarritasun turistiko guztiak batera bilduz, Euskadi helmuga ezin hobea izan liteke. Zergatik ez ditugu batzen Gasteizko Santa Maria katedrala, Guggenheim eta Kontxako hondartza?

Turismoak eragin ditzakeen trabei buruz esan beharra dago edozein arlotan lor daitekeen etekinak bere ordaina duela. Turismoaren kasuan, balantzak alde positibora egiten du argi eta garbi. Ingurumena errespetatzen duen turismo arduratsua eta ordenatuak ez dio kalterik egiten inori ere. Alderantziz, turismoak bestelako sektore ekonomikoak dinamizatzen ditu, baita gizartea bera ere.



Koro Garmendia **Turismo sailburuordea** **Eusko Jaurlaritza**

Uda oso garai garrantzitsua da, aisialdiko turismoa bisitari kopurua aintzat hartuz gero. Dena dela, nire iritziz, Euskadin urtaroen arteko oreka egokia eskuratu dugu; izan ere, lan turismoak, bilera eta kongresu turismoak, zubiek eta abarrek laguntzen digute urte barruan datozen turista kopuruak handitzen eta zabal-tzen. Uda honetarako ere prest

gaude: zerbitzuak, baliabide turistikoak, eskaintza berriak, informazioa eskuratzeko bulegoak eta kanalak gertu daude, Euskadi aukeratu duten bisitariak atsegin handiz hartzeko. Euskal Turismoaren Lehiakortasunari buruzko Planean honelaxe definitzen dugu geure sektorearen ikuspegia: Euskadi produktu anitzeko destino gisa garatu nahi dugu, ahalik eta urtarokotasunik txikiena helburu. Horretarako, dagoeneko existitzen diren segmentuak sendotu behar dira (kultura eta hiria), interes berezia duten segmentu berriak bultzatu (natura, enoturismoa, itsas bidaietako turismoa) eta motibazio profesionala eta aisia uzartu. Turismo iraunkor eta selektiboaren aldeko apustua egiten dugu, turistek eta txangozaleek gure herriko txoko guztiak ezagut ditzaten.

Badago, noski, zer hobetua: hainbatetan produktua ez dago behar bezain osaturik. Bestetik, merkaturatze bideak asko ari dira aldatzen eta aurki kaleratuko dugun web atariari esker erronka berria izango dugu: eskaria eta eskaintza egoki uzartzen asmatzea. Ez dezagun ahaztu bisitariak beren destinoa aukeratzeko dutela. Eusko Jaurlaritza saiatzen da turistak lurralde barruan mugi daitezen, baina erakargarritasun maila ez da bera lurraldeko txoko guztietan. Hiriek bisitarien %62 biltzen dute eta barrualdeak %27, baina oraindik ere bi kopuru horiek nabarmen haz daitezke. Gasteizek, adibidez, 10 urtean (1997-2006) %89,5 gehitu du bisitari kopurua.

Turismoa ekimen ekonomikoa da, gure barne produktu gordina-ren %5,3 osatu eta 47.000 lanpostu sortzen ditu. Inkestetan euskal gizarteak oso iritzi baikorra dauka turismoari buruz, egun zehatz batzuetan eta toki jakin batzuetan aparkatzeko arazoak izan arren. Gure erredua eta Benidormekoa oso desberdinak dira; ingurura begiratzea besterik ez dago, guztiz bestelakoak direla egiaztatzen. Salneurri dagokien eta ingurukoekin alderatuz gero, Euskadi helmuga garestia da, eta halaxe uste dute bisitariak. Hala ere, inkesten arabera, kalitateak prezioa justifikatzen du. Horixe da gure garapen ereduaren bidea.

Santiago Olarreaga **Donostiako campuseko** **turismo irakaslea** **Deustuko Unibertsitatea**



Ezin da sekula egon turismoa hartzeko aski prestatuta. Nolanahi ere, nire ustez, Euskadi, oro har, prestatuta dago. Lan handia egin da azken urteotan eskari turistiko-ra moldatzeko, nahiz eta bereizketak egin daitezkeen gai eta lurraldeka. Adibidez, Araba eta Bizkaian hotelen eskaintzak gora egin du; Gipuzkoan, aldiz, igoera hori oso txikia izan da eta defizit nabaria dugu, bai kopuruen nahiz prezio eta kategoria desberdinen eskaintzan ere. Turisten barneko mugikortasuna bizkortzeko sistema hartzailea ere hobetu daiteke, jomuga turistiko gisa daukagun erakargarritasuna areagotu eta egonaldiak luzatzeko.

Turismo mota jakin batzuk saihestu baino gehiago, nire ustez, produktu turistikoaren aukera zabalagoa definitu eta sustatu behar litzateke, batez ere hain ezagunak ez diren segmentuetara zuzenduta. Natura nahiz kultura turismoak, bainuetxeetako turismoak eta gastronomikoak bide luzea dute egiteko. Lanean ari gara, baina, nire iritziz funtsezkoak diren bi alde azpimarratu nahi ditut: lehenik, enpresa eta erakunde publiko eta pribatuaren arteko koordinazio beharrezko eta, batzuetan, korapilatsua; bigarrenik, Euskadi bere osotasunean hartu eta kilometro gutxian erakargarritasun desberdinak biltzen dituen helmuga turistiko bakar modura saltzea. Saihestu behar dugu gurera datozen turistek bi edo hiru leku ondo ezagutu eta, informazio ezagatik, eskura izan dituzten beste asko bazter uztea. Horretarako, zerbitzu berriak sortu behar dira, ekimenak koordinatu, informazioa eman eta, orokorrean, barneko mugikortasuna hobetu, turistek gauza gehiagorekin gozatzeko aukera izan eta euren egonaldia luzatu dezaten.

Gainera, ez nator bat, inondik inora, turista dirua ematen duen beharrezko gaitza dela esaten duen ikuspuntuarekin. Turismoak ez ditu auto ilara edo eraikuntza masiboak eragiten. Are gehiago, nire ustez, oso garrantzitsua da gure herrikideek –turismoarekin bizi eta erlazionatzen direnak– turismoaren onurak zeintzuk diren argi izatea. Izan ere, turismoaren garapena bultzatzen duten faktoreetako batzuk bisitariari egiten diegun harre-ra eta gure abegikortasuna dira.

Begoña Miñaur
Kazetaria

Astean birritan etxetik bertatik lan egiteko aukera eskaini diote urliari, eta ordutegi malgua lortu du sandiak, haurrak eskolara eraman ahal izateko. Berendiak goizeko lan-txandan dihardu aspalditxotik, arratsaldez boluntario-programa baten ari delako. Gogobetetze-inkestak noiznahi bidaltzen dizkigute giza baliabideen sailetik, eta pizgarriak eskaintzen dizkigute prestakuntza-programe-

tan eta lan-taldearen kohesioa areagotzeko ekimenetan parte har dezagun. Korporazio handiek basoak landatzen dituzte Kenian, hemen eragindako berotegi-efektuko gasen isuriak konpentsatzeko. Goi-zuzendarien soldatak aitortzen dituzte enpresek beren web guneetan, eta erabiltzaileen kexuak Intraneten argitaratu. Zoratu dira? Zer geratzen ari da enpresa-munduan?



Norberaren kultura izango da, edo belaunaldi kontua, apika. Batera edo bestera dela, ospe, entzute, erreputazio hitzak entzundakoan askori “fama txarra” dator kigu gogora, Brassens-en *La mauvaise réputation* abestiaren erruz, hain seguru ere. Gaur egungo enpresa-kudeaketan dihardutenei, ordea, EGE edo Enpresaren Gizarte-Erantzukizuna begitanduko zaiela esango nuke, azken bospasei urte hauetan gai giltzarri bilakatu baita. Alabaina, asko hitz eginagatik, ez da uste bezainbeste aurreratu kontzeptu zail eta konplexu hau argitze aldera. Zer da EGE? Zertan datoz bat Brassens eta Europako Kontseilua?

Erabateko haustura?

“Fama edo ospea: garesti ordaintzen da, eta errazegi galitzen”. Horretan bat datoz, bada, Séte herrian jaiotako abeslaria eta 2000. urtean Lisboako goi-bileran enpresen biziberritze moralala aldarrikatu zuen Europako Kontseilua. Poetak bere sasoiko gizartearen zurikeria agerian jarri nahi izan zuen abesti horren bidez, eta Europako agintariek gardentasuna eta konpromisoa eskatu zizkieten Batasunaren esparruan diharduten enpresei.

Ingurune ekonomikoa gero eta lehiakorragoa da, baina historian lehen aldiz beharbada, lehiatzeko gaitasuna ez dago produkzio eta merkaturatze hutsaren esku. Produktuen arteko aldea gero eta txikiagoa da, batetik, bateratu egin direlako kontsumo-ohiturak eta enpresa guztiak antzeko beharriaz erantzuten dietelako, eta, bestetik, ekoizpenerako teknologia gero eta errazago eskura daitekeelako. Teknologiaren hedatze horrek erabat irauli ditu hainbat merkaturen barne-dinamikak; nonahi originalak bezain “egiazkoak” diruditen kopia merkeen fenomeno horren adibiderik argiena da.

Bada, zeri begiratu behar dio enpresak gaur egun lehiakorra izango bada? Edo merkatuaren ikuspegitik azalduta, zerk makurrarazten ditu kontsumo-ohiturak enpresa baten edo besteren baten alde? Enpresa “konfiantzakoa” izatea,

aintzat hartzea, “irudi” ona izatea. Horra, beraz, Brassens-en esaldiari buelta emanez, enpresaren “ospe ona” guztien ikusmiran.

Testuingurua aldatu egin da, eta egoera berrira egokitu guran, enpresaren estrategiak ere mudatzen ari dira. Asko dira aldaketa sakon horiek eragin dituzten faktoreak, eta gehienetan elkarrekin iltzatuta datozkigu. Presio lehiakorra gero eta handiagoa da, marjinak inoiz baino estuagoak, eta kontsumitzaileen elkarteak, kontsumo arduratsua deitu ohi den hori, pisua irabaziz doa. Enpresak gizartearen parte dira, eta gizartea nabarmen ari da aldatzen. Solidaritatea, ingurumenarekiko kezka, justizia, herri pobretuetako lankidetzeta eta gisa bereko baloreak aldarrikatu egiten ditu gure gizarteak, modako bihurtu dira eta. Gizarte zibilaren parte-hartze antolatua, finantza-eskandaluek eragindako sinesgarritasun-krisiak eta komunikabideek eragindako presioa gaineratu liteke aldaketa ikusarazten diguten faktoreen zerrendara.

Zerk eragin du egiazki enpresaren eta gizartearen arteko dibortzioa? Funtsean, berdin dio. Benetan axola al du jakitea zergatik aldatu den enpresaren estrategia bere ingurunearekiko? Jadanik ez. Orain, egoera berrira egokitzea eta bidean asmatzea da inporta duena. Non dago, baina, “ospe onaren” altxorra adierazten duen X?



Eboluzioaren kate-begia

Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE), enpresek beren solaskide edo interes-taldeekiko harremanetan gizarte eta ingurumenaren esparruetako ardurak txertatzea da. Gaur egun, oro har, onartzen da enpresaren zereginak bi planotan neurtu behar direla. Batetik, enpresaren egiteko behinena errentagarria izatea da, arrakasta horren eskutik etorriko direlako, etortzekotan, gizartearentzako onura zuzenak: lanpostuak sortuko ditu enpresak, eta kalitatezkoak akaso, eta zergak ordainduta herri osoa gartzeko ekarpen garrantzitsuak egingo ditu. Bestetik, enpresak gizartean jokatzeko duen zereginari gero eta garrantzi handiagoa ematen dio gizarteak, enpresa-egiturak garapenaren eragile aktibo direla ohartuta. Hasi bere interes-talde hurbilenetik, hau da, enpresaren lan-taldetik, eta zeharkako inpaktua eragin dezakeen esparruraino iritsita, adibidez, azken-azken hornitzaileraino.

Hau guztia ez da bat-batean sortu, jakina. Aurreko hamarkadetan bizi izandako prozesuen ondorio logikoak dira. Kalitate-programak ezartzen hasi ginen, eta erabateko bikaintasunera heldu ginen ibilian-ibilian. Halakoan, ISO ziurtagiriak zaharkituta geratu ziren harrera-gelatan zintzilik, eta “urrezko Q” eta EFQMren ikurren bila abiatu ginen arrapaladan, bezeroen eta lehiakideen aurrean nork lehenago erakutsi. Eta zuzendaritza-taldekoen papar-hegaletan intsignia distiratsuak agertzen hasi ziren.

Gizarte-erantzukizun korporatibo edo enpresakoa eredu horien guztien oinarria da, eta, neurri batean, guztiak biltzen ditu bere baitan. Batetik, aurrekoen irakasbideak aplikatu egiten dituelako eta, bestetik, aurreko arau edo joerek ez bezala, enpresaren barne- eta kanpo-dimentsioak integratu egiten dituelako.

Arestian esan den legez, kultura herritarraren hedatzearekin erabat lotuta dago joera berria. Herritarrok, izan ere, kontzientzia hartu dugu geure indarrez. Gure baloreekin bat datozen kontsumo-ereduak saritzen ditugu, eta deitoragarriak iruditzen zaizkigun praktikak gaitzetsi. Nekazaritza ekologikoaren aldeko joerak nabarmentzen ditugu, eta beren irabaziak haurren esplotazioan oinarritzen dituzten enpresen joera salatzen dugu. Kontsumoa gure eskubidea izateaz gain, presiorako lan-tresna demokratikoena ere bihur dezakegu.

Robert Kaplan *Harvard Business School* erakundeko irakaslea da eta aspalditxotik makina bat lan interesgarri argitaratu du kudeaketa-ereduak eta kalitatea uztartuta. Irakasle honen aburuz, enpresaren barne- eta kanpo-bezeroen gogobetetzea lehiakortasun-faktore giltzarria izango da etorkizun hurbilean; adibide modura diosku AEBetako kontsumitzaileen hautuak

%85ean enpresaren aktibo ukiezinen arabera ebatziko direla hamarkada honen amaiera aldean. Datu bat baino ez da, baina aski esanguratsua, gure iritziz.

Bai baina...

Funtsean, interes-taldeen igurikapenak eta baloreak aintzat hartuz kudeatzera garamatza joera berri honek. Lan-taldearenak lehenik eta behin, enpresaren zuzendaritza-eredu ireki, garden eta parte-hartzailearen bidez. Bada, amaitu dira goitik beherako erabakiak, erantzunik onartzen ez duten informazio-sistemak, ordutegi mugiezinak eta lan-arriskuari ez begiratzea. Amaitu dira oraintsu arteko ereduak.


Enpresaren jardueraren inpaktua (zuzena ala zeharkakoa) pairatzen duen gizartearen asmoak, desioak, iritziak eta jakinurak ase behar ditu enpresa erantzule berriak, eta, ondorioz, zenbaki hutsak baino askoz irispide luzeagokoak diren bere emaitzak ezagutarazi beharko ditu: zer egiten ari den ingurumen-inpaktua gutxiagotzeko, zertan berrinbertitzen dituen dibidenduak, zein neurri zehatz hartuko duen, adibidez, genero-berdintasuna bermatzeko. Beste horrenbeste, hizkuntza-aniztasunaren arloan, adibidez.

Joera hauek guztiek aldaketa sakonak eragin dituzte jadanik enpresetan, baina orain arte izozmendiaren tontor txiki bat baino ez dugu ikusi.

Enpresa-komunikazioaren esparruan nozitu dira aldaketak aparteko indarrez, eta badira marketinaren adierazpide soiltzat hartu dituztenak. Zuzen egon daitezke, jakina, baina EGEEK askoz potentzialtasun handiagoak dituela nabarmen agertzen digute beste adibide batzuek. Nolanahi ere, erantzukizunaren bidean aurrera egin nahi duen enpresak derrigor galdetu behar dio bere buruari noraino dagoen prest kudeatzeko modua goitik behera aldatzeko.

Interes-taldeekiko harremana zentzu bikoia izango da, ala ez da izango. Lan-taldearen motibazioa eguneroko zereginetan txertatu beharko da, edo ekintza solte bezain alferrikako bihurtuko dira gaur egun hain modan ditugun parte-hartzeko programa eta ekimenak. Estrategia eta taktikaren arteko aldeaz ohartu beharko dute zuzendaritza-taldeek, honek guztiak aurrera egingo badu. Hau da, enpresak ingurune lehiakor berrian iraungo badu.


Pili Kaltzada
Komunikazio-aholkularia



Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos

Castelló, Montserrat (koordinatzailea)
Grao
Barcelona, 2007
224 or.


Unibertsitateko ikasleek euren ikerlanak idatziz aurkeztu behar izaten dituzte behin eta berriro, baina gutxitan esaten zaie lanok nola idatzi. Zergatik erakutsi behar zaie horretan? Ez al dute idazten ikasi aurreko mailetan? Bada, kontua ez da hain erraza. Izan ere, ikasleek ondo komunikatzen ikasteaz gain, jakintza arloei lotutako diskurtsoak landu behar dituzte, benetako profesional bihurtu nahi badute. Lan honek ez du irtenbide sinplerik eskaintzen, ez da esku-liburu bat inondik inora; hori bai, hausnarketarako bidea ematen du eta baliabide egokia da komunitate zientifikoan hobeto komunikatu ahal izateko.



Administración electrónica

Barriuso, Carlos
Dykinson
Madrid, 2007
477 or.


Administrazio elektronikoak errotik aldatu ditu administrazio barruko harremanak, bai eta administratuen nahiz administrazioen artekoak ere. Hori dela eta, lehengo kontzeptuak, sistemak eta segurtasun politikak berraztertu eta moldatu egin behar dira. Egin-eginean ere, liburu honek erroka horri aurre egiten lagundu nahi digu, bertan azaltzen baitira jakin beharreko hainbat arau eta kontzeptu, hala nola administrazio elektronikoaren inguruko arauak, herritarren eskubideak, komunikazio elektroniko motak, datuen euskarri elektronikoa...



Diccionario de uso de las mayúsculas y minúsculas

Martínez Sousa, José
Trea
Gijón, 2007
250 or.


“Éste es un libro difícil”. Horrela ematen dio hasiera liburuari egileak berak. Eta halaxe da: ez da batere erraza esatea noiz erabili behar diren letra larriak eta noiz ez, eta idazten duenak beti egingo du zalantza. Lan honek ez dizkizu zalantza guztiak argituko, baina ematen dituen arauak eta hiztegiak bidelagun izan daitezke gaztelaniaz idatzi behar duzunean.



Euskal irakaskuntza aztergai

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Gasteiz, 2007
315 or.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz maila bereko hizkuntza gaitasuna lortzeari begira, Eusko Legebiltzarrak 2005eko abenduaren 2an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zion ele biko irakasteredu berri bati buruzko azterketa sakonari ekiteko. Azken hilabeteotan lan eskerga egin eta gero, Hezkuntza sailburuak irakas ereduak birmoldatzeko proposamena aurkeztu zuen Legebiltzarrean, martxoaren 8an. Orain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, argitalpen honen bidez, hezkuntzako eragile guztien esku jarri nahi izan ditu prestatutako txosten gehienak. Aurkezten diren lanen artean, batzuk saileko zerbitzu teknikoek egindakoak dira, beste batzuk sailak berariaz sortutako lantaldeek prestatutakoak, eta beste batzuk kanpoko goi mailako adituek landutakoak. Bide berriari ekiteko lagun izan nahi dute.



Hizkuntza-ebaluzioko terminoen glosategia

ALTEko partaideek prestatua
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Gasteiz, 2007
128 or.

ALTE (Association of Language Testers in Europe) hizkuntza azterketa eta hizkuntza ziurtagiriak kudeatzen dituzten erakundeen arteko elkarte europarra da eta 1990ean sortu zen hizkuntzen ebaluzioan lanean ari direnei laguntzeko. Gaur egun ALTEko partaideak atzerriko hizkuntzen mugari mailen erreferentzia markoa zehazten ari dira, Europar Batasuneko herrialdeetan lortzen diren hizkuntza agiriak alderatu eta parekatu ahal izateko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da lan hizkuntza guztietan ikerlanetarako terminoak ere baliokideak izatea, hau da, termino bat erabiltzen denean guztiok gauza bera ulertzea. Eta horixe da, hain zuzen, glosategi honetan aurkituko duzuna: lehendabiziko zatian glosategia euskaraz; ondoren hiztegitxoak: Ingelesa-Euskara, Espainiera-Euskara, Frantsesa-Euskara eta Katalana-Euskara.



Abertzaletasuna auzipean

Sabino Aranak Roosevelti bidalitako telegrama

Si Europa imitara también nación vasca su pueblo más antiguo que más siglos gozó libertad rigiéndose constitución que mereció elogios Estados Unidos sería libre.
ARANA GOIRI.»

Azpian 164 pezeta eta 15 zentimo jarri zituen zigiluetan, telegrama helduko zela baieztatzeko. Baina posta bulegoan telegrama hartu zuen langileak, nork bidali, nori igorri eta zer jartzen zuen ikusirik, biderik eman ez eta ekintza hori salatu zuen. Biharamunean, Gobernu Zibilak epaileari telegramaren berri eman eta azken horrek Sabino Aranari deitu zion, beraren aurrean ager zedin.

Sabino Arana eta euskal abertzaletasuna

Sabino Arana oso ezaguna dugu gure herrian: ikurrinaren asmatzailea, Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailea, *Euzkadi* hitzaren “aita”. Euskal abertzaletasun politikoaren bultzatzaile nagusietarikoa dugu.

Sabino Arana Bilbon jaio zen 1865ean. Gaixorik zegoela eta etxean egindako egonaldia batean, politikaz jardun zuen Luis anaiarekin. Aranatarrek karlostarren aldekoak ziren; aitak, esaterako, karlismoaren aldeko ideiegitatik ihes egin behar izan zuen. Baina, ideia horietatik harago, Euskal Herria desagertzeko arriskuan zegoela ikusi zuten; izan ere, sasoi batean Foruei esker izan zuen *askatasuna* galduta zeukan aspaldi. Hortxe egon zen aranatarren pentsaeraren berrikuntza; euren iritziz, askatasun hori berreskuratu beharra zegoen, Euskal Herriak etorkizunean biziraun zezan.

Baina, Sabino Arana berehala ohartu zen ideiak izatea ez zela nahikoa eta iritzi horiek jendeari helarazi behar zizkiola. Hortaz, ezinbestekoa zen mezuak laburbiltzea, argi azaltzea eta ikur edo sinboloak erabiltzea. Bide horri jarraituta, ikurrina bera, *Euzkadi* hitza edo himno berria asmatu zituen. Beste hainbat lan eta ekitaldi egin zituen Sabino Aranak, baina horietarik ikusgarriena, beharbada, Roosevelti, Estatu Batuetako garai hartako lehendakariari, bidalitako telegrama du. Agiri horretan Sabino Aranak euskaldunak askatzeko laguntza eskatu zion amerikarrari.

Roosevelti bidalitako telegrama

1898. urtean askatasuna lortu zuten ordura arte Espainiaren menpe egondako Kubako lurrek. Gerra gogor bezain odoltsu baten ondorioz, Espainiako inperioak azken kolonietako lurren jabetza galdu zuen. Estatu Batuek kubatarrei lagundu eta gerran ere esku hartu zuten, Espainiaren aurka.

1902ko maiatzaren 21ean Sabino Arana Sukarrietan zegoen; bertatik Bilbon zebilen Pedro Grijalba lagunari deitu eta telegrama bat idazteko agindu zion; Aranak berak eman zion testua ere. Laguna hil bereko 26an Bilboko posta bulegora joan eta telegrama bat bidali zuen Estatu Batuetako lehendakaria zenari zuzenduta:

«Rosevelt. Presidente Estados Unidos. Washington. Nombre partido vasco nacionalista, felicito por independencia Cuba federación nobilísima que presidís que supo librarla esclavitud. Ejemplo magnanimidad y culto justicia y libertad dan vuestros poderosos Estados desconocido historia e inimidade para potencias europeas particularmente latinas.

Epaiketa

Epaitegian Aranak telegrama berea zela baieztatu zuen; era berean, argi utzi zuen Pedro Grijalbak bere aginduak betetz jardun zuela. Halaber, EAJ alderdia arriskuan ez jartzearen, epaileari adierazi zion berak ez zuela inolako zerikusirik alderdi horrekin, telegraman esandakoarekin ados zeuden hainbat pertsona ezagutu arren.

Hiru egun geroago, maiatzaren 30ean, epaileak Sabino Arana kartzelan berehala sartzeko erabakia hartu zuen, “inolako fidantzarik ordaintzeko aukerarik eman gabe”. Honako delitu larri hau egotzi zioten: Espainiar Nazioaren izaeraren aurkako ekintzak aurrera eramatea. Gainera, zigortuak 5.000 pezeta ordaindu behar zituen hogeita lau orduko epean, epailetaren kostuari aurre egiteko.

Hurrengo egunetan epaileak hainbat pertsonaren lekukotzak hartu zituen. Itxierak eta epailetak saihesteko asmoz, *Centro Vasco* eta *Euskalerrria* erakundeetako nahiz *La Patria* eta *Euskalduna* egunkari eta astekariko kideek epaileari adierazi zioten ez zeukatela zerikusirik abertzaletasunari buruzko ideiekin. Bien bitartean, antza denez –betiere, *El Liberal* egunkariak argitaratutakoari men eginez–, ekainaren 5ean, EAJkoak omen ziren kide batzuek bisita egin zioten Carlos Yensen-i, Bilbon Estatu Batuetako kontsul ziharduen pertsonari, alegia. Bisitaldi horretan Sabino Aranak idatzitako telegrama ospetsua Estatu Batuetara igortzeko eskatu zioten.

Epaileak abuztuaren 30erako ezarri zuen epaiketa eguna; alde zurretik, abokatuek hainbat ahalegin eta eskari egin zituzten Sabino Arana kartzelatik atera eta libre uzteko, osasun arazo larriak zituela eta, baina saiakera horiek porrot egin zuten.

Atzerapenak atzerapen, azaroaren 7an egin zen epaiketa, eta epaimahaiko hamalau pertsonak, entzun beharrekoak entzun eta gero, errugabe izendatu zuten Sabino Arana. Bost hilabete kartzelan egon eta gero, Arana aske zegoen berriro ere. Urtebete geroago, Sukarrietan hil zen euskal abertzaletasun politikoaren sortzailea.

Asier Madarieta
Abertzaletasunaren Museoko teknikaria

